

Hiru Truku Oñatin
Iparraldeko doinuak ekarri zituzten
KULTURA, 22-23

Bergara: garaipenarekin esan dio agur mailari
Bergarak lehen erregionalean jokatuko du datorren denboraldian
KIROLA, 14

Juanito Artzamendi
Arrasaten omenaldi hunkigarria egin zioten
KULTURA, 25



ASTELEHENEKO
Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko maiatzaren 30a • 2. urtea • 59. zenbakia • 0,90 euro

Ipar Euskal Herriko kutsu handia izan dute aurten Gorpuztiek

Laixan euskara elkarteak lehen aldiz antolatutako 'Iparraldea Oñatin' ekimenak harrera ona izan du

Iparraldeko lagunekin bat eginik lelopean, eta Ipar Euskal Herria Oñatira hurbiltzeko asmoarekin, hainbat hitzordu egon da asteburuan Oñatin.

Laixan euskara elkarteak bultzatutako ekimena izan da eta batutako dirua Iparraldeko lau euskal irratiei emango zaie.

Zapatu gaueko kantaldiarekin eman zitzaion bukaera lehen topaketa honi. Hiru Truku, Maddi Oihenart eta Etxartarrak batera aritu ziren Kiroldegian. 22-23

KONTZERTU JENDETSUAK
Asteburuko bi musika emanaldiak arrakastatsuak izan dira. Etxeko eta Iparraldeko taldeek batera emandako saioak izan dira

ORDEZKARITZA ZABALA
Ezpeletako fanfarrea, Baigorriko dultzaineroak, Amikuzeko joaldunak eta Lapurdiko bertsolariak etorri ziren Oñatira

JANARI DASTATZEA
Zapatuko hamaiketakorako Iparraldeko lagunek gasna, ahatekia, Irulegiko arnoa eta txerrikia ekarri zituzten, besteak beste

IPARRALDEA PLAZARA
Herriko plazan burutu zituzten ekitaldi gehienak Iparraldeko lagunek. Egindako harrera beroa eskertu nahi izan dute

OIHANA ELORTZA

Barrikada sinbolikoarekin egin zitzaion zapatuan harrera Oñatin Iparraldetik etorritako lagun taldeari.

Rob Jebb nagusi Aizkorriko maratoian

Asier Urdanpilleta eta Leire Ezpeleta 10. izan ziren 16

ARGAZKI PRESS

Gizon bat hil zen auto istripuz atzo

Eskoriatzako Bolibar auzorako bidetik errepide nagusira erori zen autoarekin 4

Txolarte Kluba eta eguneko zentro berria Arrasaten

Atzegi elkarteak zabalduko ditu. Hala azaldu zuten zapatuan, Antzuolan egindako Atzegizaleen jaian. 160 batu ziren bazkaltzeko herriko pilotalekuan. 5

GEUREAN

• MIla lagun inguru batzu ziren erretiratuen bazkarian Arrasaten | 6
• Lan istripuak salatzeko manifestazioa egin zuten eguenean Bergaran | 8

Edorta Agirre elikagaietan adituak hitzaldia egingo du eguenean Aretxabaletan | 7

GORPUZTI JAIAK OÑATIN

AINTZANE AGIRRE

Klaxk elkarteko 77 kideek *Oñatiko txokolatero* legez aitortzen dituzten 10 aginduei zin egin zieten zapatuan egindako *Doktoradutzan*.

TXOKOLATEAREN I. JARDUNALDIA | 'OÑATIN TXOKOLATIA BIZIRIK' JARDUNALDIA EGIN ZUTEN ZAPATUAN, KLAXK OÑATIKO TXOKOLATEROEN ESKUTIK

Oñatiko txokolate zaletasunari errekonozimendua egin diote

Oñatin Txokolatia Bizirik izeneko jardunaldia egin zuten zapatuan eta Klaxk Oñatiko txokolateroak elkartea aurkeztu zuten Oñatiko Unibertsitatean egindako ekitaldian

Marijo Deogracias

Ohore guztiekin egin zen zapatuan Klaxk Oñatiko Txokolateroak elkartearen aurkezpena. 77 kide ditu elkarteak, baina hazteko bokazioz sortu da. "Batetik txokolateak zale asko dituelako; bestetik, Oñatin Txokolatia Bizirik jardunaldia Gorpuzti Egunaren bezperan egiten jarraituko dugulako" azaldu zigun Luis Mari Anduaga Klaxk-eko kideak. Berak egin zuen zapatuko *Doktoradutzarako* txokolatea: "Lau kontinentetatik ekarritako kakaoarekin eta Europako azukrearekin Oñatin egindako txokolatearen ontza bana janarazi diogu Klaxkide bakoitzari" esan zigun Anton Azpiazuk. Bera da ekimen honen bultzatzailea. Zapatuan urduri samar zegoen arren, gustura aritu zen batera eta bestera Oñatiko unibertsitatean elkartu ziren txokolatezale guztiei kasu egiten. "Bi urte behar izan ditugu Klaxk elkartea eratzeko eta den-dena uste baino hobeto atera da" aitortu zigun emozioari ezin eutsita Azpiazuk.

GOI MAILAKO DASTATZEA

Estimatzen den edozein txokolate elkarte moduan, nahi beste txokolate egon zen zapatuko ekitaldian. Goi mailako dastatzea antolatu zuten aurkezpenaren hasieran. Natxo Corbero Bartzelonako Kakaoaren eta Txokolatearen Institutuko kidea aritu zen horretan. Unibertsitateko areto nagusira elkartutako txokolatezaleek bandejatxo bana zuten esku artean, eta Natxok emandako azalpenei jarraituz dastatu zituzten munduan dauden hiru kakao motak lehenengo eta lau txokolate motak gero.

Antxon Agirre Sorondo etnologoa ere izan zen ekitaldian. Berari tokatu zitzaion Jerardo Elortzak eta Jose Antonio Azpiazuk goraipatutako txokolate zaletasun oñatiarrari "esklusibitate pixka bat kentzea. 1890eko erroldaren arabera Bergaran 8 txokolategile zeuden; 162 biztanleko txokolategile bat. Oñatin, aldiz, bakarra: Miguel Antonio Galdos y Guridi" bota zuen Agirre Sorondok.

Lau kontinentetatik ekarritako kakaoarekin egin zuten txokolatea

"Mojei izugarri gustatzen zitzaien txokolatea eta nola hasi afrodisiakoa dela aitortzen!"

Baina datu bitxi horiek alde batera utzita, barre algara dezente eragin zituzten bere komentarioek. Batez ere txokolatea afrodisiakoa zelako ustea zabaltzen hasi zenekoa kontatu zuenean: "mojei izugarri gustatzen zitzaien txokolatea eta apaizak nola hasiko ziren bada txokolatea afrodisiakoa zela aitortzen!".

Kontuak kontu, Agirre Sorondo berak ere Klaxk elkartearen ekimena bikaina dela aitortu zuen txokolateaz gozatzen zuen bitartean.

GORPUZTI JAIAK OÑATIN

Euskal gastronomiak txokolatea erabili du?

LUIS MOKOROA | GASTRONOMIAREN EUSKAL KOFRADIAREN PRESIDENTEA

Lehen asko. Kontsumoa jaitsi egin den boladatxoa pasatu berri dugu eta berriz ari da gora egiten. Sukaldean gehiago erabiltzen dugu, batez ere saltsak egiteko. Oso ezagunak dira oilagorrak eta eperrak txokolate saltsan. Jakina, postreak egiteko ere erabiltzen dugu txokolatea: katilukada, gelarekin edo bonboi erara.

Horrelako ekimenek eragingo dute txokolatearen erabilera igotzea. Ideia polita iruditu zait. Ni neu hemen bizi izan nintzen txikitan eta gogoan daukat, umetan, nola atzamarra sartzen genuen txokolategiko zuloetatik ahal zen guztietan txokolatea probatzeko.

Txokolateak zer ematen die gozoei?

JOXE MARI GORROTXATEGI | GOZOGILE TOLOSARRA

Azkeneko ehun urteetan asko, eta geroz eta gehiago, postrerik gehienak txokolatearekin egiten dira eta. Orain dela 150 urte txokolatea ez zen eskuekin jaten, edan egiten zen. Aldiz, sukaldaritzan azken 40 urteetan txokolatea gozogintzan, postreetan eta kartan geroz eta gehiago sartzen ari gara. Sasoi baten txokolate ontza eta ogia ematen zitzaion umeari eta gaur egun, biak batera datoz; opil-egitea asko aurreratu da.

Horrez gainera, txokolateak postreari modernismoa eman dio eta teknika harrigarriak lantzen dira. Pentsa ezazu, orain azalarentzako txokolate igurtziak ematea ere ona dela esaten dute. Izango ez da ba!

Txokolatezaleak al gara jateko orduan?

NATXO CORBERO | GASTRONOMIAN ADITUA

Iparraldean asko gustatzen zaigu guztioi txokolatea; tenperatura kontua ere bada, hotzak laguntzen du horretan; 25 gradutik gora txokolatea ezin da jan, edan egin beharko genuke eta nik neuk txokolatea jateko nahiago dut. Elkarteak hartu duen izena, txokolateak ahoan apurtzerakoan egiten duen doinu hori, zoragarria da eta ahoan sartzean oso hunkigarria da. Gaur bertan, elkarteak egin duen txokolatea probatzeko aukera izan dut eta harritu egin nau: izugarri ona zegoen. Txokolatea atsegin ez duenak txokolate zuria jatea nahiago izaten du mingotsa ez delako, baina hori umeentzako txokolatea da.

Zer iruditu zaizu Klaxk elkartea eratzea?

MARIA LUISA AZPIAZU | KLAXK-EKO LEHENDAKARIA

Orain dela bi urte, Arantzazun nengoela, Anton Azpiazu asmoa azaltzera etorri zitzaidan. Hain pozik ikusi nuen, ezezkorik ezin izan niola eman. Oñatiko herria betidanik izan da txokolatezalea eta behar zen horrelako zerbait eratzea. Ideia benetan polita da eta ni moduko txokolatezale batentzako, beharbada, gehiago. Betidanik izan naiz txokolatezalea. Gizona zenak ere probatzeko ematen zidan txokolatea. Atsegin nuen txokolate berriak probatzea eta gaur jaten eman digutena ere oso gozoa zegoen; berezia izan da.

Eskertzekoa da horrelako ekimen bat bultzatzea, eta txokolatezaleok jarraituko dugu.

Oñatiarrak txokolatezaleak dira?

GERARDO ELORTZA | HISTORIALARIA

Ni neu ez naiz oso zalea, baina alabari izugarri gustatzen zaio. Txokolate fabrikan ari direnei ere askotan galdetu izan diet usaiarekin gogaituta behar dutela izan eta eurek, ezetz. Txokolatea asko aldatu da sasoi batetik hona, baina umetan jaten genuen egiteko txokolate hura, sendoa, gogorra. Gaur egun Zahor txokolate fabrika geratzen da bakarrik Oñatin, baina nik neuk 7-8 txokolategi ezagutu izan ditut herrian. Zaletasuna beti izan da handia, jada, XVIII. mendean herriko abade batek idatziz jaso zuen txokolatea bizioa zela, eta diru asko txokolatetan gastatzen zela. Gure amamek ere giltzapean gordetzen zuten txokolatea.

GORPUZTI EGUNEKO PROZESIOA | OHITURARI JARRAITUZ HERRIKO ZAINDARIA ATERA ZUTEN KALERA OÑATIARREK ATZO

Eguraldiak eutsi egin zion eta ez zuen euririk egin goizeko prozesioan

Julen Kortabarria aritu zen atzo dantzariei aginduak ematen; Mikel Irizarrek kapitain izateari laga dio hamar urteren ostean. Jende asko egon zen prozesioa ikusten

M.D.

Gorpuzti Egunak jai handia izaten jarraitzen du oñatiarrentzat eta atzo, ere, jendetza handia batu zen herriko zaindari Arkanjelua prozesioan ikustera. Goizeko 11etako meza ostean izan zen prozesioa eta herriko agintariek lagunduta eraman zituzten Aldareko Jaunaren Kofradiako kideek Jesukristo, Apostoluak eta San Migel bera. Euria iragarrita zegoen arren, eutsi egin zion eguerdiko prozesioa egin bitartean. Arratsaldean bota zuen euria.

KAPITAIN ALDAKETA

Dantzariek parte-hartze garrantzitsua izaten dute Gorpuzti Eguneko prozesioan. Eta, atzo, arreta piztu zuten bereziki. Izan ere, kapitain berria aritu zen kriskitinak noiz jo agintzen. Hamar urteren ostean Mikel Irizarrek kapitain izateari laga dio-eta. Bere lekuan, gona urdina lehenengoz aldean zuela, Julen Kortabarria aritu zen. Berak darama Oñatiko dantzari nagusien taldearen ardura eta Mikelek zioen moduan, "merituak egin ditu kapitain izateko". Urduritasuna sumatzen zitzaion Juleni, berak lasai zegoela aitortu zigun arren. Bezperan egon ginen berarekin eta "lasai eta ilusionaturik nago. Ohore handia da niretzako" esan zigun.

EHUN URTEKO OHITURA

Jendearen animuok ez zituen falta izan; jendeak "aupa Julen" esaten zion atzera eta aurrera ari zen bitartean. Ardura handia zen Julenentzako; oñatiarrek ehun urte luzez ikusi dituzte Irizartarrak kapitaintzan. Mikel Irizarrek esan zigunez, "aita, aitona eta haren anaia izan ziren kapitain nire aurretik, baina aldatzeko sasoia ere bazen eta kontuan hartuta herriko dantzari gazte guztiak indartsu eta gogoz datozela atzetik, gustura hartu dudan erabakia izan da. Orain Juleni tokatzen zaio disfrutatzea". Horri buruz galdetu genion Juleni, ia beste ehun urtez arituko diren Kortabarriatarrak dantzan eta oinordekotzari buruz, "oraindik goiztxo" dela aitortu zigun berak: "Gazteegia naiz, oraindik, baina urte batzutan behintzat arituko naiz".

M.D.

Oñatiko patroia eta apostoluak Aldareko Jaunaren kofradiako kideekin.

AINTZANE AGIRRE

Xabier Etxaguen (EHU), Jose Maria Alzeiga (MU) eta Aurelio Villa (Deusto Unibertsitatea) hitzaldian.

Unibertsitate-hezkuntzaren berrikuntza eztabaidagai

Bi eguneko nazioarteko mintegian unibertsitatearen funtzio eta erronka berriak aztertu dituzte hainbat adituk

Larraitz Zeberio

Eguen eta barikuan hainbat unibertsitatetako ordezkariak elkartu ziren Aretxabaletako Otalora Jauregian *Ikaskuntzan Oinarritutako Ereduak* izeneko nazioarteko mintegian parte hartzeko.

Hitzorduak esperientziak eta ezagutzak trukatzeko balio izan du, eta baita unibertsitatearen funtzio eta erronka berriak zeintzuk diren aztertzeko ere. Bertan izan ziren Aalborg (Danimarka), Monterrey (Mexiko), Maastricht (Holanda) eta Euskal Herriko hiru unibertsitateetako ordezkariak. "Asko ikasi dugu, ekarpen oso onak egin dira-eta", esan du MUko errektoreorde Jose Mari Alzeigak. "Aukera paregabea izan da gai hauetan aurretik goazen unibertsitateen artean esperientziak trukatzeko".

ERREKTOREORDEEN MAHAI-INGURUA

Mintegiari amaiera emateko euskal unibertsitateetako errektoreordeen mahai-ingurua egin zen Aretxabaletan. Unibertsitate-hezkuntzaren berrikuntza izan zen aztergai eta hiru galdera nagusi planteatu ziren; zergatik da beharrezkoa aldaketa?, zein norabideetan egin beharko litzateke? eta zein aukera eta zailtasun dago aldaketa honi aurre egiteko?

Gizartea eta ekonomia eraldatzen ari diren neurrian hezkuntza-ereduen egokitzea ezinbestekoa dela adostu zuten hiru errektoreordeek. "Ikaslearen autonomian eta erantzukizunean oinarritutako hezkuntza-eredua bultzatu behar dugu", adierazi digu Alzeigak. "Zeharkako konpetentzia, eleaniztasuna eta teknologia berriak izango dira gakoa". Hezkuntza eredu zaharrak gainditzea izango da unibertsitateen lehenengo erronka.

• ERRETIRATUEN BAZKARI ERRALDOIA ARRASATEN

AINTZANE AGIRRE

MILA LAGUN INGURU BATU ZIREN MUSAKOLAN

Aurten ere erabat arrakastatsua izan da Arrasateko SUDC elkarteak erretiratuendako antolatu duen bazkaria. 1.000 lagun inguru batu ziren eta bazkaldu ostean dantza saioa egin zuten. Bestalde, urteroko tradizioari eutsiz, emakumezko eta gizonezko nagusienei omenaldia egin zieten: Antonio Bragado (88 urte) Toki Argi egoitzakoak eta Marina Sanchez (96 urte) Abaroa egoitzakoak jaso zuten omenaldia. SUDCek eskerrak eman nahi dizkie laguntza eman duten guztiei.

• BOLIBARREKO BIDETIK ERORI ZEN AUTOAREKIN

JULEN IRIONDO

GIZONEZKO BAT HIL ZEN ATZO ESKORIATZAN

18:40ak aldera gidatzen zuen autoarekin Eskoriatzako Bolibar auzoko bidetik 627 errepide nagusira erorita hil egin zen 64 urteko JL.A.R. gizonezkoa. Ertzaintzatik adierazi zigutenez, suhiltzaileek atera behar izan zuten gidaria eta Mankomunitateko ospitalera larri zaurituta eta konorte barik eraman zuten. Ospitalean, ordea, ezin izan zuten ezer egin eta 20:40ean hil egin zela baieztatu zuten Land Rover autoaren gidaria.

LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ATZEGI I DEBAGOIENEKO BAZKIDEEK ANTZUOLAN EGIN DUTE AURTEN URTEROKO BATZARRA

Atzegik eguneko zentroa eta Txolarte kluba irekiko ditu Arrasaten

Zapatuan batzarra eta bazkaria egin zituzten Antzuolan Debagoieneko 160 atzegizalek. Hurrengo hitzordua ekainaren 16an dute Arrasaten egingo da-eta Gipuzkoako batzarra

LARRAITZ ZEBERIO

'Desberdintasunek bat egiten gaituzte' lelopean abiarazi du Atzegik bere aurtengo kanpaina. Adimen urritasuna duten pertsonen integrazioa du helburu.

Larraitz Zeberio

Antzuolako Olaran etxean batu ziren zapatu eguerdian Debagoieneko atzegizaleak urteroko batzarra egiteko. Jose Angel Zabalo alkateak egin zien harrera eta batzarrari hasiera emateko Atzegiren –adimen urriko pertsonen aldeko gurasoen elkartea– ibilbidea jasotzen duen *Tantaz Tanta* izeneko ikus-entzunezkoa proiektatu zuten.

ERRONKA BERRIAK

Atzegi elkartea proiektu berriak lantzen ari da eta zapatuan aurkeztutakoen artean Arrasaten zabaltzekoak diren Txolarte aisialdirako kluba eta eguneko zentro berria nabarmentzen dira. "Zeharok, berriz, bulego berria zabaldu du Arrasaten, non adimen urritasuna duten pertsonak lanpostu egokietan kokatzen dituzten", esan zuen eskualdeko ordezkari Jokin Antxiaren ordez aritu zen Maixabel bozeramaileak.

"Bergarako Txolarte klubak arazoak izan ditu irailaz geroztik begirale kopuruak behera egin zuelako nabarmen", esan zuen bozeramaileak. "Badirudi arazoa konpondu dela, baina garrantzitsua da denen artean gure lana ezagutzera ematea horrelakorik berriz ez gertatzeko".

KANPAINAN MURGILDUTA

Kartelak, hitzaldiak... Atzegi urteroko sentsibilizazio kanpainan murgilduta dabil egunotan. Eskualdez eskualde gutxienez urtean behin bilerak egiteko konpromisoa ere hartu dute eta kezkaturik agertu dira antolatutako kirol ekintzek duten arrakasta txikia dela eta. "Zer gertatzen den aztertu behar dugu. Ahalegin berezia egin behar dugu alor hori gehiago lantzeko".

FILM LABURREN LEHIAKETA

Ekimen berri bat ere bultzatuko dute aurtengoan Atzegin. "Italian adimen urritasuna duten pertsonekin soilik egindako film laburren lehiaketa egiten dute urtero. Guk ere gure film laburrak egingo ditugu eta onena Gordonzolako jaialdira bidaliko dugu".

Udal ordezkaritza barik geratu izana salatzeko manifestazioa egin zuten ibarreko plataformek

'Eskubide zibil eta politikoen alde No Apartheid' leloarekin agerraldia egin zuten Oñatin herri plataformek

Asteleheneko Goienkaria

Orain dela bi urte izandako udal hauteskundeen ondotik sortutako egoera salatzeko asmoz, kalera atera ziren ezker abertzaleko eskualdeko herri plataformak joan zen zapatuan. Oñatin egindako kale agerraldia *Eskubide zibil eta politikoen alde. No Apartheid* aldarrikapenarekin egin zuten. Manifestazioaren amaieran, Oñatiko Ereitten herri plataformako bozeramaileak adierazi zuenez, "hiru ildo nagusi azpimarratu nahi ditugu agerraldiarekin eskualdeko herri plataformek. Batetik, orain dela bi urte izandako udal hauteskundeen ostean sortutako egoeragatik, 8.000 boto baino gehiago udal ordezkaritza barik geratu zirela eta horrela jarraitzen dutela; eta bestetik, apartheid egoera hori oztopo izatera iritsi daitekeela Euskal Herrian azkeneko hilabete hauetan sortu den egoera berriaren aurrean".

Gainera, herri plataformen bozeramaileak azpimarratu zuenez, "apartheida gainditu beharra dago, normalizaziorako irtenbidea delako". Hala ere, Euskal Herrian sortzen ari den beste egoera berri horri begira azaldu zuen "ezker abertzalea prest dagoela prozesu horretan parte hartzeko".

Kale agerraldia Oñatiko plazan hasi zen 19:00etan eta kalerik nagusienak zeharkatu ostean, berriz ere plazan amaitu zen.

AINTZANE AGIRRE

Zapatu arratsaldean egin zuten manifestazioa Oñatin ibarreko ezker abertzaleko herri plataformek.

EUSKARA ELKARTEAK | BESTEAK BESTE, ONDORIO HORRETARA IRITSI ZIREN ZAPATUKO MINTEGIAN BERGARAKO EUSKARA ELKARTEKO KIDEAK

Parte-hartzea bultzatzeko bideak topatzea izango da Jardunen erronka

Elkartearen gaur eguneko diagnosia eta aurrera begirako erronkak zehaztu dituzte urtemugako ospakizunen baitan

Monika Belastegi

Eguaztenean hasi eta zapatura bitartean 15. urtemugako ospakizunetan murgilduta egon da Bergarako Jardun euskara elkartea. Ospakizun soilaz haratago, hausnarketarako bi ekitaldi ere egin dituzte: bata, Julen Arexolaleibak eta Iñaki Arrutik euskara elkarteek datozen urteotan izango dituzten erronken gainean egindako hitzaldia; bestea, hitzaldia lagungarri hartuta, Jardun elkarteko kideek egindako mintegia. Mintegi hori zapatuan egin zuten, eta elkartearen sorreratik gaur egunera arteko bilakaera ordezkatu zuten 20 bat lagun batu ziren. Guztien artean elkartearen beraren gaur eguneko diagnostikoa egin zuten eta aurrera begirako helburu eta erronkak zehaztu zituzten.

Olatz Olasok, Jarduneko lehendakariak esandakoaren arabera, besteak beste bi ondorio nagusi atera dituzte bi ekitaldiotatik: alde batetik, euskara elkarteen helburu nagusi izaten jarraitu behar dutela euskararekiko motibazioak eta sentsibilizazioak. Eta bestetik, bideak asmatu beharko dituztela herritarren parte-hartzea bultzatzeko.

AINTZANE AGIRRE

Urtemugako ospakizun ekitaldien barruan ikasturte bukaerako jaia egin zuten egubakoitzean.

Egoeraren diagnostikoa

• **INDARGUNEAK:** hiru indargune nabarmendu dituzte: bata, herrian onarpena lortu duela elkarteak. Bestea, ume eta gazteen arloan izandako lorpenak, besteak beste: asteburuetako aisialdia, trikiti eskola eta gazte taldea. Eta hirugarrena, elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuak egonkortu egin direla.
• **AHULGUNEAK:** herrira gehiago zabaldu behar direla uste dute, herritarrengana modu eraginkorragoan iristeko. Izan ere, oraindik herritarren parte-hartzea handitu daitekeela uste du Jardunek. Bestalde, egunerokotasunean murgilduta ere, hausnarketa sakonagoa beharrezkoa dela diote.
• **AUKERAK APROBETXATU:** Komunikabide eta teknologia berriak aprobetxatu behar dituztela uste dute. Baita gazte euskaldunen kopuruak gora egin izana ere.

Datozen urteotarako erronkak

• **SENTSIBILIZAZIOA:** Gaur egun 16 urtera arteko gazteekin egiten duten lanari jarraipena eman behar diotela iritzi diote. Esaterako, guraso izateko dauden gazteengana iristea garrantzitsutzat jo dute, horien jarrerak haurrengan eragingo duelako.
• **KOMUNIKAZIOA ETA PARTE-HARTZEA:** Batetik, nahi dute herritarrek Jardun hobeto ezagutzea eta hala, haren irudia hobetzea. Bestetik, herritarren parte-hartzea areagotu nahi dute. Horretarako bide berriak erabili behar dituztela azpimarratu dute.
• **METODOLOGIA ETA PLANGINTZA:** Lan metodologia baten beharra ikusi dute. Honako hau jarraituko dute aurrerantzean: lehenengo, egin beharrekoa hausnartu eta planifikatu egingo dute; gero, egin; ondoren, egindakoa neurtu eta jarraipena egin, eta azkenik, beharrezkoa bada, egokitu.

Epaitegiarekin harremanak euskaraz izan ditzatela eskatuko die EHEk herritarrei

Zapatuan, Bergarako epaitegiaren hizkuntza-egoera salatzeko elkarretaratzea egin zuten

M.B.

Zapatu eguerdian elkarretaratzea egin zuten Bergarako Euskal Herrian Euskaraz taldeko kideek Bergarako epaitegiaren aurrean. *Erdararen maileguek ez zaitzatela zapaldu, epaitegixan hizkuntz eskubideak bermatu* lelopean egin zuten agerraldia, ordu erdiz.

Elkarretaratzeak epaitegiaren hizkuntza-egoera salatzea zuen helburu. EHEko kideek azaldu zutenez, Bergarako epaitegian dauden lau epaileek eta bi idazkariek ez dakite euskaraz. Fiskaletatik batek bakarrik ulertzen du zerbait euskaraz baina ez da berba egiteko gai, eta gainerako langileetatik %50ek daki euskaraz.

URRATS BERRIA

Iaz ekin zion Euskal Herrian Euskaraz taldeak epaitegiko hizkuntza-egoera salatzeari eta zapatuan azaldu zutenez, salaketari beste urrats bat gehituko diote aurrerantzean: herritarrengana hurbilduko dira eta epaitegiarekin dituzten harremanak euskaraz egin ditzatela eskatu.

Horren harira, ekainaren 18rako hainbat ekitaldi antolatu dituzte Bergaran: batetik, mahaingurua egingo dute justizia administrazioarekin lotura duen jendea gonbidatuta. Horren ondoren, mobilizazioak egingo dituzte eta, bukatzeko, bazkaria Etxagi jatetxean.

M.B.

Bergarako epaitegiko sarreran egin zuten salaketa elkarretaratzea EHEko kideek.

Gastronomiaz asko daki, aspalditik gainera. Eta euskaraz landu du gaia beti. Hala ere, elikaduraz ari da aspaldi honetan hainbat hedabidetan, bai eta berbaldiak ematen. Datorren eguenean, hilak 2, Aretxabaletan izango da, Loramendi euskara elkarteak gonbidatuta. 'Euskal sukaldaritzaren antropologia' liburua aitzakia hartuta arituko da elikadurak gurean sor ditzakeen kezkez. Berbaldi dinamikoa egiteko gogoz dator eta horretarako jendearen parte-hartzea nahi du Edortak. Jendearen kezkei erantzun eta elikagaien jatorriez, ondorioez, erabileraz... eztabaidatu eguenean udaletxe zaharrera gerturatzen den jendearekin, 19:00etan.

EDORTA AGIRRE | ELIKAGAIETAN ADITUA

"Erosi eta kontsumitu baino ez dugu egiten. Protagonistak ez gara"

BERRIA

UEUn elikaduraz aritu izan da aurreko urteetan Edorta Agirre.

Marijo Deogracias

***Euskal sukaldaritzaren antropologia* liburua aitzaki hartuta arituko zara Aretxabaletan, eguenean, udaletxe zaharrean.**

Tira, liburuak izen hori dauka, baina prentsa idatzitako elikaduraren gaineko artikuluen bilduma da. Baina ez da ez sukaldaritzaz ezta antropologiaz ere; elikaduraren bilakaeraz da gehiago.

Orduan, zertaz arituko zara?

Nahiko modan dago sukaldaritza, eta ez bakarrik hori, elikaduraz ere asko hitz egiten da. Elikadura hiru ikuspegitatik aztertu behar dugu: produkzioa, transformazioa eta kontsumoa. Produkzioak: itsasotik, ukuilutik, menditik... datorrenaz. Transformazioa: etxekoa eta kalekoa. Kalekoan kontserbak, cateringak eta jatetxeak; etxekoan, norberak lantzen duena, baina emakumea, zorionez, lan munduan sartu da eta haren etxea gerente barik geratu da; eta horrek aldaketak eragin ditu elikaduran.

Hirugarrenik kontsumoa: bi ikuspegitatik landu behar da. Bata nutrizioa, osasuna, ongizatea eta, gaur egun, obsesioa. Bestetik, plazerra, gastronomia.

Horretaz guztiaz galderaerantzunen bitartez aritu nahiko nuke.

Bestalde, badago beste arlo interesgarri bat: geroz eta urrutiago produzitzen diren elikagaiak jaten ditugula, eta horren aurrean plazaratu nahi dudan ideia litzateke ea horrek zer eragiten digun eta ea kalterik eragiten digun. Esan nahi dut: distantziak, bai denboran eta bai espazioan, zer eragin du gugan? 200 bat iragarpen egin ditut, eta horretaz arituko gara.

Iragarpen larriak dira?

Dena da larria. Esate baterako, itsasoan ez dago arrainik, ez dago antxoarik ez eta bakailaorik ere. Protagonismoaren parte garrantzitsu bat desagertu egin da horri lotuta; Donostialdean antxoak gatzetan jartzen zituzten arrantzale askok eta geroago lagunekin jaten zituzten. Orain, berriz, zer egiten dugu? Erosi eta kontsumitu, eta hori ez da protagonista izatea. Kontsumitzaile hutsa izateko kezkari gehitu beharko zaio protagonista bakartia izatearena. Hortaz, hori dugu hurrengo etapa? Euskaldunok dugun abantailetariko bat, indigenak garen aldetik, mahaiaren inguruan elkartu eta eztabaidatzea da. Horretaz asko dakizue Debagoienean: kooperatibak hor sortu ziren, kalean, komunikazioa lantzen den lekuetan. Hori galtzen badugu, akabo.

Baina eusten diogu pintxoaren ohiturari.

Baina horretan ere geroz eta *domingero* gehiago dago. Tabernak baino gehiago irudiaren tabernak ari dira zabaltzen; dena da gainekoa, azalekoa, oskolekoa... Pintxoa aperitiboa da, apetitua irekitzeko, baina gaur egun norbera luzitzeko pieza bihurtu da pintxoa, galdu dute izpiritua.

Baina beti geratuko zaizkigu sagardotegiak.

Ez da ikuspegi katastrofista emateagatik, baina sasoi nahiko *tontoa* bizitzen ari gara: sagardogileak badaki sagardo guztia salduta duela, ona ala txarra izan. Soberakina agertzen bada, agian, hasi beharko dugu gerrikoa estutu eta enologoekin kultura horretan sartzen.

Zapatuan Oñatin txokolatearen lagunartea aurkeztu zuten. Esperantzarik ez dugu galduko.

Irunen XVIII. mendearen hasieran 12 maisu txokolategile zeuden eta Baionan, Donibane Lohizunen, Donostian eta Oliten ere baziren.

Txokolatearen kultura izugarria egon da gurean. Euskaldunek jakin dute egon ez den lekutik ateratzen; lautadan ondo bizi izan ziren olio, gari eta ardoarekin. Kostaldean, berriz, jende oso gutxi bizi izan da eta ez dagoenetik ateratzen trebatu ginen; horregatik ez da harritzekoa Ameriketatik artoa euskaldun batek ekarri izana, eta kakaoa ekarri orduko txispak ateratzen ikasi gintzaizkion.

"Pintxoa apetitua irekitzeko zen, baina gaur egun norbera luzitzeko pieza bihurtu da"

"Elikagaiak geroz eta urrutiagotik ekartzen ditugu, eta horrek zer eragin dauka gugan?"

"Sagardotegien sasoi 'tontoa' bizitzen ari gara. Dena salduta dutela badakite"

"Irunen XVIII. mendean 12 maisu txokolategile zeuden, eta Baiona eta Oliten ere baziren"

0000 km
Mondeo
C-Max
Fiesta
Hauxe da aukera!
MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es
Ford
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak

LAN ISTRIPUAK | ALGODONERAKO HERIOTZA SALATZEKO MANIFESTAZIOA EGIN ZUTEN BERGARAN ELA, ESK ETA STEE-EILAS SINDIKATUEK DEITUTA

Sindikatuek diote heriotzen aurrean jarrera "gogortzen" joango direla

Eguenean Bergaran egindako manifestazioa "aurrerapausoa" dela azaldu dute ELA, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek. Deba ibarreko 150 bat lagun batu ziren

Monika Belastegi

Lan istripu gehiagorik ez leloa zeraman pankartaren atzean egin zuten manifestazioa eguenean Deba ibar osotik etorritako 150 bat lagunek. ELA, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek egindako deiarekin bat egin eta lan osasuna eta segurtasuna aldarrikatu zituzten Bergarako kaleetan barrena. Deitzaileek jasanezintzat jotzen dute Debagoienean lanean diharduten langileen egoera, eta azaldu zutenez, lehiakortasunaren eta produktibitatearen izenean lan baldintzak okertu egiten dira. Bestalde, istripu larrien oinarria prekarietatea dela gehitu zuten, eta administrazioari legea betearazteko neurriak har ditzala eskatu zioten.

Sindikatuok azaldu zutenez, eraikuntza da arlorik kaltetuena, eta aurreko hilean eraikuntzan gertatutako istripua izan zen, hain justu, egueneko manifestazioaren abiapuntua: apirilaren 29an 25 urteko Andoni Zubiri goizuetarra hil egin zen Bergaran, hondeatzeko makinarekin Algodonerako eraikina botatzeko lanean ziharduela. Makina irauli eta azpian harrapatuta hil zen langilea. Amenabar eraikuntza enpresako azpi enpresa batek kontratatuta ziharduen lanean.

Bost egunera elkarretaratzea egin zuten ELA, ESK, STEE-EILAS eta LAB sindikatuek. Han, halako gertakarien aurrean jarrera gogortu behar zutela erabaki zuten, elkarretaratzeetara mugatu barik. Hala, ordubeteko lanuztea egitea aztertu zuten. Azkenean, EAK, ESK eta STEE-EILAsek manifestazioa egitea erabaki zuten. LABek, berriz, lanuztearen alde egin zuen, nahiz eta ekimenak ez duen aurrera egin.

M.B.

Deba ibarreko 150 bat lagun batu ziren egueneko manifestazioan.

• SINDIKATUEN IRITZIA

EGOITZ ITURBE | ELA SINDIKATUA

"Ez dago prebentziorik; prebentzioa ez da inbertsiotzat ulertzen. Garrantzitsuena produktibitatea da"

"Ez dago inongo prebentziorik. Prebentzioa putzutzat jotzen da; ez inbertsiotzat. Garrantzitsuena konpetibitatea da, produkzioa, etekinak ateratzea. Patronala eta administrazioarendako ere etekinak lortzea da garrantzitsuena eta osasuna eta segurtasuna hobetzeko aurrekontuak murriztu egiten dira".

PILAR ETXANIZ | STEE-EILAS

"Administrazioari eskatzen diogu oso zorrotza izatea legea betearazten"

"Legeari eusten ez dioten enpresariei oso merke ateratzen zaizkie jartzen dizkieten isunak; langileei, berriz, garesti. Administrazioari eskatzen diogu oso zorrotza izatea legea betearazten, eta datu ekonomikoak ematen dituztenean ez erabiltzea bakarrik irizpide lehiakorrak, lan baldintzekin lotutakoak ere adieraztea eta hobetzeko plangintzak egitea".

JUAN JOSE AZKARATE | ESK

"Negoziazio Kolektiboan garrantzi handiagoa eman behar zaio gai honi; zerrendaren goialdean jarri behar da"

"Egoerari buelta emateko bi gauza egin daitezke: bata, lantokietan Negoziazio Kolektiboan gai honi garrantzia handiagoa eman eta negoziazio zerrendan goiko postuetan jarri. Horretarako, kontzientziatu egin behar gara. Bigarrena, Gobernuaren eta inspekzioaren arloan hutsune handia dago: egitura badago, baina gauzatzeko ahalmenik ez".

JOSE RAMON KORTABARRIA | LAB

"Halako gertakarien aurrean ordubeteko lanuzteak egingo ditugu aurrerantzean "

"Halako gertakarien aurrean elkarretaratzeak eta manifestazioak motz geratzen dira. Horregatik egin dugu aurrera ordubeteko lan uztearen proposamenarekin. Azkenean ez da gauzatu, herriko bi enpresetan baino ez delako horren gaineko batzarra egin. Hala ere, hori izango da aurrerantzean jarraituko dugun bidea".

Enpresa orrialde honen babeslea:

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATI
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045

SEIN
grupo•taldea
Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

Albiste izango da

ARRASATE | MENDIAN HILDAKOA ERE OMENDUKO DUTE

MUk auto istripuan hildako lau oñatiarrak omenduko ditu etzi

Mondragon Unibertsitateak apirilaren 20an auto istripuan hil ziren Oñatiko lau gazteak eta mendi istripuan Pirinioetan hildako oñatiarra omenduko ditu etzi, eguaztena. Guztiak MUko ikasleak ziren, eta omenaldi ekitaldia Goi Eskola Politeknikoko irakasle eta ikasle guztiek proposatu eta onartu dute. Omenaldi ekitaldia 18:30ean hasiko da Goi Eskola Politeknikoaren ondoan dagoen pilotaleku txikian. Besteak beste, hildako gazteen hainbat bizipen jasotzen dituen bideoa emango dute eta gazteen familiakoei oroigarri bana emango diete.

DEBAGOIENA | ETZI, EKAINAK 1, IZANGO DA

Deba Garaiko Ospitaleak erretzeari lagatzeko ikastaro egingo du, doan

Deba Garaiko Ospitaleak erretzeari lagatzeko ikastaroa antolatu du ekainaren 1erako. Bertako langileek, honezkero, hainbat ikastaro egin dituzte, zuzendaritzak diruz lagunduta; izan ere, ospitalean debekatuta egongo da erretzea urriaren 1etik aurrera. Aurrea hartu nahi izan diote legeari eta kerik gabeko gunea izango da urritik aurrera ospitalea (2006an jarriko dute indarrean).

Deba Garaiko Ospitaleak ekainaren 1erako, etzirako, antolatu duen ikastaroa nahi duen edonorendako izango da, doan, gainera. Sei orduko ikastaroa izango da, 08:00etan hasi eta 14:00ak arte. Easy Way metodoan oinarrituta egongo da ikastaroa.

ARRASATE | 19:30EAN, AMAIA ANTZOKIAN

Arizmendikoek Kilometroen abestia aurkeztuko dute egubakoitzean

Arizmendi ikastolak egubakoitzean aurkeztuko du Kilometroak 2005erako prestatu duten abestia. Aurkezpen ekitaldia egubakoitzean izango da, 19:30ean, Amaia antzokian, eta parte hartuko dute 60 irakasle, ikasle, guraso eta aktore profesionalek.

OIA da abestiaren izenburua eta Jon Sarasuak idatzi du. Sarasuaren esanetan, "esperimentazioa da bere izpiritu. Fonemekin jolasten du letrak. Soinu jolas bat da eta hasieran ez da ulertzen esaten duena. Gero, sakonean, bai, esaten ditu gauzak. Sormenerako dei bat da, hizkuntzaren oihu bat, izateko aldarrikapen bat. Baina deszifratu egin behar da. Deszifratzeko kantu bat asmatu dugu". Sarasuak gehitu duenez, OIA siglek zer esan nahi duten jakin nahi duenak, ezinbestean Amaia antzokira joan behar du egubakoitzean.

BERGARA | EKAINAREN 9AN HASIKO DA

Zabalik dago izenematea sorosle eta sorospen ikastarorako

Gipuzkoako DYAk, sorosle eta lehen laguntza ikastaroa antolatu du. Interesa duten guztiei dago zabalik eta ekainaren 9an hasiko da. Hiru aste iraungo ditu, ekainaren 29ra arte, hain justu ere eta eskolak izango dira astelehenetik egubakoitzera, 19:00etatik 21:00etara, kultura etxean. Nahi duten ikasleek ikastaro bukaerako frogak egin ditzakete, eta gaindituz gero Sorosle titulua jasoko dute. Gainera, EHUrako bi kreditu jasotzeko aukera ere ematen du. Ikastaroaren prezioa 60 euro da eta ikasle kopurua mugatua. Izenematea edo informazio gehiago: 943 46 46 22.

ARRASATE | 19:00ETAN, DR. IBAÑEZ 1, BEHEAN

Pobrezia Zero kanpaina ezagutzera emateko hitzaldia etzi

Ekainaren 4an Elkartasun Eguna egingo dute Arrasaten Ingenieria Sin Fronteras, Mundu Solidarioa Helburu, Harreman, Serso eta Nubi elkarteek. Egun hori erabiliko dute Pobrezia Zero kanpaina bultzatzeko. Horren aurretik, baina, kanpaina ezagutzera emateko hitzaldia antolatu dute. Etzi, ekainak 1, izango da, 19:00etan, San Andres parrokiak Dr. Ibañez 1, behean duen lokalean. Hitzaldian EAEko kanpainaren koordinatzaile Miguel Gonzalezek egingo du berba. Antolatzaileek azaldu dutenez, deialdi irekia da eta herritarrak partehartzera gonbidatu dituzte, ahalik eta proposamen gehien jasotzeko asmoz.

Hitzorduak

ASTE BERDEA EGINGO DUTE DEBAGOIENEKO HAINBAT HERRITAN |

Azoka ekologikoak, irteerak, hitzaldiak, lehiaketak... antolatu dituzte

Ingurumenaz kontzientziatzeko, Aste Berdea hasi da gaur, astelehena, Debagoieneko zenbait herritan. Arrasaten, konpostaje erakusketak, birziklatze tailerra, kale antzerkia, Bir-Zikleta azoka –horretarako materiala egunotan biltzen ari dira, Azokan–, umeendako ekintzak... izango dira, besteak beste. Aretxabaletan, zenbait hitzaldi antolatu dituzte; txotxongilo saio bat, erakusketa bat eta baita ikasleendako irteerak eta lehiaketak ere. Azkenik, Elgetan, batik bat ikasleendako ekintzak izango dira: zabor bilketa, marrazketa... Ekainaren 5era arte iraungo du ibarrean Aste Berdeak.

ANTZUOLA |

• Antsietatearen gaineko hitzaldia erretiratuendako
Antsietateari aurre egiteko gakoak delako hitzaldia egingo du Oihana Etxabek eguenean, ekainak 2, Olaran etxean, 18:00etan. Erretiratuen elkarteak antolatu du.

ARETXABALETA |

• Hezkuntzaren inguruko hitzaldiak daude egunotan
Kurtzebarri eskolak hitzaldiak antolatu ditu. Gaur, astelehena, 2-5 urte bitarteko umeen heziketa jarraibideen gaineko hitzaldia egingo dute Juan Luis Martin psikologoak eta Ainhoa Manzano EHUko irakasleak 18:00etan. Bihar, martitzena, *Familiaren eragina haurren garapenean* delako berbaldia egingo dute, 2 urteko umeen gurasoendako. Hori 18:30ean izango da.

• Errioxara irteera egingo dute Basotxoko erretiratuek
Ekainaren 9an, eguena, egingo dute irteera hori. Goizean, Logroño bisitatuko dute; bazkalostean, Brionesko ardomuseoa ikusiko dute. Izenematea zabalik dago aste osoan.

ARRASATE |

• Musika eta gazteria taldeendako dirulaguntzak
Herriko musika eta gazteria taldeendako dirulaguntzak deitu ditu Udalak. Musika taldeen kasuan, baldintza da maketa grabatzeko erabiltzea dirua. Eskariak egiteko mugaeguna da ekainaren 10a.

• *Telebistaren eragina haurren garapenean* hitzaldia
Hitzaldi hori izango da eguenean, hilak 2, San Viator Txiki gunean, 15:00-16:15, aitonamona eta zaintzaileendako. Arizmendiko Guraso Eskolak antolatzen du.

• Burgosera irteera antolatu dute Pake Leku elkartekoek
Ekainaren 20tik 22ra bitartean bisitatuko dute Burgos eta inguruko hainbat herri. Izena emateko, jo Pake Leku erretiratuen egoitzara astelehen edo eguaztenetan, 18:30-20:00.

• Arrasate Musikalen, matrikulazio epea zabalik
Ekainaren 22ra bitartean –egun hori barne– duzue musika eskolan izena emateko aukera. Horretarako, joan euren idazkaritzara, lanegunetan, 17:00-20:00 ordutegian. 4 urtetik aurrerako edozein matrikula daiteke. Leku kopuru mugatua dagoenez, izenemate ordena jarraituko dute.

DEBAGOIENA |

• Hilabete bat edo bi familia euskaldunekin pasatzeko
Egonaldiak Familia Euskaldunetan programan parte hartu nahi dutenek bihar, martitzena, dute izena emateko azken eguna. Horretarako, deitu 943 47 44 47 telefono zenbakira edo jo *www.egonaldiak.net* webgunera.

• Debagoieneko kirol jaietarako izenematea
14. Debagoieneko Edadetuen Kirol Jaia egingo dute hilaren 3an, egubakoitza, Oñatin, Mankomunitateak antolatuta. 15:15ean hasiko da; 17:30ean, opariak jasoko dituzte partehartzaileek; eta 18:00etan, luntxa eta dantzaldia izango dira. Bestalde, hilaren 4an, 13. Denontzako Kirol Jaia izango da, Arrasaten, 10:30-13:00. Bietarako izena emateko azken eguna duzue gaur, astelehena, kirol zerbitzuetan.

OÑATI |

• Musika eskolan matrikula egiteko aukera dago
Musika eskolan matrikula egiteko epea zabalik egongo da ekainaren 1etik 15era bitartean. Horretarako, joan euren bulegora 18:00-20:00 ordutegian.

• Heziketa zikloetan aurre-matrikula zabalik
Mekanizazio, makinen mantenu eta kirol ekintzen gidaritza zikloak antolatu ditu Zuazola-Larraña institutuak. Aurre-matrikula egiteko epea zabalik dago ekainaren 1etik 8ra bitartean.

Iritziak

Isilpekoak

943 76 92 71

goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Azkenik bidea zabalik

Irakurle bati esker jakin dugu, azkenean, ireki dutela Kanpanzarrera doan bidea Arrasateko Kataide paretik. "Gaur goizean konturatu naiz ireki dutela bide bat Kataideko biribilgunetik, zuzenean Kanpanzar aldera joateko. Horrek esan nahi du gaurtik aurrera, Arrasatetik joanda, posible izango dugula biribilgunetik Kanpanzarrera egitea, San Prudentziora joan beharrik barik. Badakizue lauzpabost hilabetez Kanpanzarrerantz egin nahi genuenean, ez genuela aukera hori. San Prudentziora joan behar genuen, han buelta eman, eta gero, Arrasatera bidean eskuinera sartu Kanpanzarrerantz, biribilgunera iritsi aurretik". Hortaz, lanak zirela eta bidea moztu bazuten ere, konpondu dute dagoeneko eta norabide bietatik egin daiteke Kanpanzarrera igotzeko bide berrirako sarrera.

• Errepide zulatu madarikatuak

Izenburu horrekin jaso dugu hurrengo txistua: "Gure errepide arduradunei galdera egiteko gogoa daukat aspaldidanik. Batez ere nire auto txikiarekin errepidera ateratzen naizen bakoitzean. Lagun batek esan zidan joan zen astean Oñatira heldu baino 50 metro lehenago hasi eta Arantzazuko bidegurutzeraino itzelezko zuloak daudela. Eta lastima bada ere, arrazoia dauka. Hortaz galdera bat errepide arduradunei: lur orotariko automobila ematen dizuete karguarekin batera?"

• Blogarien kontuak

Gipuzkoako Foru Aldundiak DVrekin sinatu duen hitzarmenaren kontura, blog lehiaketa antolatzeko, hainbat txistu jaso ditugu erredakzioan. Informazio gehiago nahi izanez gero, www.eibar.org helbidean sartu.

Sarean harrapatuta

Eskuko telefonoarekiko dependentzia

Madrilen inkesta bat egin berri dute, eta datuak beldurgarriak dira. Umeen %38k antsietatea dutela esaten dute eskuko telefonorik ez badute gainean. 11-17 urteko umeen %25ek lau aldiz aldatu dute aparatua. %18k esaten dute sexu proposamenak egin dizkiotela eskuko telefonoz. EAEn ere 10-14 urte arteko umeetan bitik batek du poltsikoko telefonoa. Gai honi buruzko eztabaida jarri dute *Goiena.net* atarian.

UMEAREN GURASOEK DUTE ERRU GUZTIA

Hori da gurasoek eskuko telefonoa erosten dietelako, beraz, errua ez da mutikoena, gurasoena baizik. Beraiek erosten diete kontrolatuta edukitzeko beren umea, ez dute kontuan hartzen zein ondorio duen horrek, eta azkenean kalterako izaten da. Nire ustetan erru guztia gurasoena da.

Miterrang / www.goiena.net

NIRI PROPOSAMEN LIZUNIK EZ

Jope, bada niri ez didate sexu proposamenik egiten... Hau da hau!

Sex / www.goiena.net

BERE ALDE ONAK ERE BADITU SEGAPOTOAK

Esan beharra daukat ni lehen eskuko telefonoaren guztiz aurkakoa nintzela. Baina orain, poltsikoko telefono barik etxetik irteten naizenean badirudi munduaren akabera datorrela. Hau duk komeria! Lehen gustura nengoen poltsikoko barik eta orain bera barik ezin bizi!

Askatasuna dugu, baina aldi berean eskuko telefonoaren morroi gara. Ondo dago edukitzea, baina alde txarrak ere baditu. Lehen ere Internet barik ondo bizi ginen eta orain gero eta gehiago dago etxeetan. Gizarte hau gurpil bat da, geldiunerik ez duena. Ikusiko dugu etorkizunean ze gauza asmatzen duten gure ongizaterako.

Mobilizatue / www.goiena.net

DIRUTZA GASTATU GURASOEN KONTURA

Gero eta ume eta gazte gehiagok dute mugikorra. Gurasoek badute zeresana. Sakelako telefonoa erosten diete kontrolpean izateko. Eta ez pentsa segapoto arrunt bat izango denik; gurasoek azken teknologiadun sakelakoa erosten dute beren semea besteak baino gutxiago ez izateko. Batzuk mugikorraren menpe bizi dira. Dirutza dezente gastatu duenik ere ezagutzen dut, gurasoak ordainduta, noski.

Imamom / www.goiena.net

UMEEK EZ DUTE SAKELAKORIK BEHAR

Uste dut gehiegizkoa dela oraingo umeena. Guztiek dute poltsikoko telefonoa eta gainera ez nolanahikoa! Eta zertarako? Bada ondoan dutenari mezu bat bidaltzeko, edo betiko orduan betiko lekuan geratuko direla esateko... Eta erru handiena gurasoek dute. Zertarako erosi horrelako bat umeari? Besteen aurrean gutxiago izango delako bestela? Beste balore batzuk erakutsi behar zaizkie umeei eta ez hain kontsumistak.

Lolo / www.goiena.net

GAZTEOK EZ DUGU DEPENDENTZIARIK

Nik ez dut pentsatzen dependentzia dugunik gazteok. Nik nahi dudanean itzalita edukitzen dut. Eta ez dut uste hainbeste erabiltzen duenik jendeak, ez nire inguruan behintzat. Lagunari etxera deitu beharrean sakelakora deitzen diozu eta listo! Ze diferentzia dago lehengoarekin?

Marta / www.goiena.net

www.goiena.net

Eskuko telefonoarekiko dependentzia dugula uste duzu?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo *www.goiena.net* webgunera

Halaxe erantzun digute

Irisgarritasuna kontuan hartzen dugu, behar bezala, hirigintza planak garatzerako orduan ?

JOKIN ANTXIA |
ATZEGIKO KIDEA

Izugarrizko aurrerapenak egin dira. Ez da baimenik ematen kontuan eduki barik elementu horiek. Eraikuntza zaharra da berritu behar dena. Garrantzitsuena da kontzientzia zabaltzen doala pertsonengan. Eraikinak egokituko dira eta pertsonak ere egokitu egin beharko gara.

INMA CORDOVILLA |
ASPACEKO ERABILTZAILEA

Asko hobetu da eta jendearen sentsibilitatea ere gehitu egin da; hauxe da, hain justu, bideragarria egiteko behar dena.

Izan ere, hori baldin bada pentsatzen duguna eta nahi duguna, hau da, guztion neurrira egindako herriak izatea, beste guztia erraz-erraza izango da.

MARGARITA MARTINEZ |
ASPACEKO ARDURADUNA

Udalak eta hiritarrak geroz eta kontzientziatuago gaude, baina oraindik ere bada zer hobetu: eraikin publikoetan ez dira sarrera guztiak maldan egiten, ez dago nahikoa beheragune kaleetako espaloietan eta autoek, esaterako, parean aparkatzen dute eta bidea mozten dute.

AGUSTIN UGARTE |
HIRIGINTZAKO ZINEGOTZIA

Arrasateko Udalean esaterako, Lanak eta Zerbitzuak sailak herriko oztopo arkitektonikoak kentzeko plana egin du eta dagoeneko martxan dago; neurri batzuk hartu dira. Osterantzean, eraikin berrietan eta errehabilitazioetan beti hartzen da kontuan irisgarritasuna.

Egunkarietako harribitxiak

ESTATUAN ENKANTERA ERAMATEN DIRA ESKLABOAK
Prostituitzera behartutako 1.700 emakume askatu zituen iaz poliziak estatuan. Emakumezkoen salerosketan espezializatutako mafiek behartzen dituzte. Gehienak atzerritarrak dira eta beldurragatik ez dute egoera salatzen. Hala jaso zuen atzo *El Pais*ek erreportaje batean.

'El Pais'
2005-05-19

URRUTIKO AHAIDEA, ETXEKO SOSTENGU
Munduan milioika pertsona bizi dira lanera atzerrira joandako senitartekoek bidalitako diruarekin. 2003an, 100.000 milioi dolar osatu zituzten langile etorkinek eginiko igorpenek. 30 urte lehenago bi milioi dolarrekoak baino ez ziren. 1990az geroztik diru gehien jaso duena India da eta urtean 7.000 milioi dolar bildu ditu, batez beste. Gertu ditu Mexiko, Filipinak, Egipto eta Maroko. Hala ere, marka hori oso pattal gelditu da dagoeneko, Mexikora iaz 16.600 milioi dolar bidali baitziren, 15.000 milioi dolar 2003an. Nazioarteko Diru Funtsak azpimarratu du ekonomia txikiek dutela diru horrekiko mendekotasun handiena. Are gehiago irlak badira. Bestalde, Estatu Batuetatik bidaltzen da diru gehien.

'Berria'
2005-05-29

Tira, tira...

Xabier Azkarate 'Duson' 'El Mundo' | 2005-V-29

Egunkarietan irakurri dugu

'El Mundo'
ELKARRIZKETA

"Ulertu dut Gobernuko presidenteak mugitzeko borondatea azaldu duela, baina lehenengo ETAren keinua behar duela. Ez dakit beharrezkoa den etete erreala edo gaur eguneko intentsitate baxuko terrorismoa nahikoa den. Hiltzea erraza da. 200 kiloko bonba jartzea –eta sarraskia eragitea– ez da 20koa jartzea baino askoz zailagoa".

Unai Ziarreta
2005-05-29

'Berria'
ELKARRIZKETA

"Adierazpena argia da. Armak utzi egingo dituela esateko eskatzen dio ETAri, eta hortik aurrera prozesu bat hasiko dela. Nola egiten da hori? Su-etena iragarriz? Ez dakit. Baina ETAk ezin duena da bonbak jarriz erantzun. Lehen aldiz presidente batek Kongresuari baimena eta babesa eskatu dio baldintzak betez gero ETArekin hitz egiten hasteko".

Miguel Buen
2005-05-29

'El Diario Vasco'
ELKARRIZKETA

"Gipuzkoaren ordua iritsi dela uste dut. Datozen urteetan erabakigarriak izango diren azpiegitura proiektuak egiteko egoera egokian gaudela uste dut. Legegintzaldi hau eta hurrengoa gogoangarri izango dira Gipuzkoaren historian. Horren adibide izango dira, esaterako, errepide komunikazioak".

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri
2005-05-29

'Gara'
ELKARRIZKETA

"EHAK eta Aralar ekarpenik egin ezin izanaz kexatu ziren. Konpromisoa hartzen dut etorkizunean jokaera hori normalizatzeko, bietako bakoitzak bere ekarpena egin dezan. Otegiren kartzelaratzearen gainean, uste dut politikan ez duela guztiak balio, eta giza eskubide guztien eta berme judizial guztien defentsaren aldekoa naiz".

Izaskun Bilbao
2005-05-29

Zorroztailea

Beste plan bat

Confebask-ek plan bat bultzatuko du emakumeak industrian sartzeko. Confebask-ek plan estrategiko bat jarri du abian, hezkuntza eta enpresa alorretan eraginda, emakumeak industria lanbideetara sar daitezen bultzatzeko (…) Adierazi zuten, neurririk hartu ezean, epe ertain eta luzera industrietako lanpostuak betetzeko arazoak izango direla.

'Gara' | 2005-05-28

Elena Laka

Feminismoari leporatu izan zaio errealitatea feminismoaren ispilu konkaboan islatzea eta ondorioz itxuraz aldatzea. Sarriegi, baina, ez dago ispilu konkaborik, errealitate gordina baizik. Nahikoa da begiak zabaldu, egunkaria irakurri eta pixka bat (ez larregi ere) pentsatzeko gaitasuna izatea.

Titularra irakurri eta lehen erreakzioa: bai ondo, konturatuta zelako presentzia eskasa duen emakumeak industrian, plantxo bat neskak industriako lanpostuetara sar daitezen. Emakumeen eskubideak, berdintasuna… moduko arrazoiak burura. Segi ostera irakurtzen: zertarako neskak industrian? Epe ertainera ez ei delako izango nahikoa mutil. Arriskua dagoenez hemendik hamar urtera industrian lan egiteko nahikoa eskulan ez izateko, topa dezagun irtenbide bat produkzioa eten ez dadin. Erabil ditzagun emakumeak langile moduan.

Ez da kontu berria emakumeak ordezkotzat hartze hau. Gertatu da baserrian, gizon baserritarra fabrikara lanera joan denean; gertatu da gerra garaian, irakurri nuen euskal dantza tradizionalean ere gertatu dela. Gertatu da, oro har, gizonezkoek zeregin bat egiteari utzi diotenean. Gertatzeke dago oraindik, nahiz eta giza-baliabide eskasia egon, eliza katolikoan.

Ordezkatze motibazio honi bi arrisku ikusten dizkiot ordea: bata, gizonezkoak berriro ugaltzen direnean, emakumeak atzera etxera bidaltzea. Bestea, lan-sektore bat feminizatzen denean frogatuta dago lan-baldintzak eskastu eta gizarte-garrantzia galtzen duela. Ongi etorri emakumeak gizarteratzeko ekimenari. Ez, ostera, prezio merkeko ekimen ekonomizale hutsei.

"Zertarako neskak industrian? Epe ertainera ez ei delako egongo nahikoa mutil (…) Erabil ditzagun neskak industrian"

"Ongi etorri emakumeak gizarteratzeko ekimenari. Ez, ostera, prezio merkeko ekimen ekonomizale hutsei"

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Erredakzioa Marijo Deogracias, Jokin Etxebarria, Jon Unamuno, Jasone Zabala eta Larraitz Zeberio.

Jatorrizko diseinua Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Kepa Martelo | **Testuen zuzenketa** Karmele Etxabe | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Presidentea Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iñazio Arregi

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

KIROLA

• Verkol Aloñako neskek ezin izan zuten Gipuzkoako Kopako finala irabazi | 18
• Luis Mari Etxabururi omenaldia egin zioten Garagartzako errugbi zelaian | 20

Juan Jose Alvarez Denon Errela plataformako kidearekin jardun dugu hizketan | 16

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Denboraldiko azken argazkirako, eta Karpinen eta Alkizaren agurra aitzaki hartuta, talde guztiak, entrenatzaile eta guzti, irten nahi izan zuen argazkian.

REALA | ALKIZA ETA KARPIN AGURTZEKO FESTA POLITA IZAN ZEN ZAPATUKOA

Astiazaranen agurra hautagai berrien ongi etorri bihurtu zen

Jokin Etxebarria

Kirol mailan denboraldiari partidu on batekin agur esan bazaio ere, klubaren denboraldia oraindik ez da bukatu, eta hauteskunde kanpaina martxan da dagoeneko

Festa polita antolatu zuten zapatuan Anoetan. Bi arrazoi nagusi zeuden horretarako. Batetik, Bartzelona zetorren Anoetara, Ligako txapelduna. Eta sekula Donostian gertatu gabekoa pasatu zen: bozgorailuetatik Bartzelonako ereserkia entzun zen. Ez dut ulertzen. Gauza bat da txapeldunari pasilloa egitea, baina euren ereserkia jartzeari gehiegizkoa deritzot, nahiz eta Bartzelonari sinpatia handia izan.

Bigarren arrazoia bi jokalari handi agurtzea zen. Karpinek eta Alkizak futbola utzi dute, eta egin zitzaien omenaldia benetan hunkigarria izan zen. Batez ere, Karpinek aldageletarako bidean hartu zuen txalo zaparrada. *Karpin quedate!* garrasiak entzutekoak ziren. Agian oraindik gelditu ko da, baina jokoan ez, zuzendaritzetako batean akaso. Pena da Bittorrek futbolari jokoan agur ezin esan izana. Polita izango litzateke bi jokalariek agurra batera esan ahal izatea.

BOTO BILA

Zapatuko gauzarik azpimarragarriena, partidu aurretik eta Anoetako ateetan gertatu zen. Ez diot hori partidua txarra izan zelako –Realak aspaldian jokatu duen partidurik politena izan zen, eta Bartzelona baino gehiago izan zen, gainera–, baizik eta Realaren etorkizuna Anoetako sarreretan jokoan zegoelako. Zapatukoa izan zen Astiazaran eta konpainia palkoan jarri ziren azken eguna –ofiziala behintzat bai– eta bere lekua nork hartuko duen dago orain jokoan.

Miguel Fuentes eta Miguel Santos dira hautagai indartsuenak. Eta zapatuan Realaren zelaira gerturatuta edozein lekutan aurki zitezkeen bai baten plataformakoak, eta baita bestearen plataformakoak ere euren proiektua azaltzen eta txikiendako pegatinak ematen. Boto bila. Dagoeneko hauteskunde kanpaina hasi da, eta Reala nork zuzenduko duen dago jokoan. Ekainaren 30a dute helmuga guztiek.

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

• ZEIN JOKALARI FITXATUKO ZENUKE REALARENDAKO?

ANDER ETA FRAN | BERGARA

"Dirua edukiz gero Etoo ekarriko genuke. Baita Xabi Alonso ere"

"Dirua edukiz gero Etoo ekarriko genuke. Baina zelai erdian egongo da jokalari falta gehiena. Xabi Alonso berreskuratu beharko litzateke. Ez dugu ulertzen zergatik utzi zioten joaten".

ALAZNE ETA NEREA | BERGARA

"Xabi Alonso, Ronaldinho eta Etoo ekarriko genituzke"

"Xabi Alonso, Ronaldinho eta Etoo ekarriko genituzke datorren urterako. Horiek ederki beteko lituzkete Aranburu, Maldenovic edo Rossatok bete dituzten postuak".

GAIZKA ETA LUIS MARI | ZEGAMA

"Zelai erdiko jokalari beterano bat fitxatuko genuke"

"Karpin eta Nihaten hutsunea zaila izango da betetzen. Gainera, kontuan izanda Alkizak eta Mladenovicek ere ez dutela jarraituko, zelai erdiko jokalari beterano bat fitxatuko genuke".

ANDER, ANDER ETA JULEN | BERGARA

"Izen asko daude: Yeste, Christiano, Ronaldo, Gerard... baina garestiegiak dira"

"Zelai erdian jokalari bat fitxatuko genuke, kontuan hartuta Karpinek eta Alkizak ez dutela jarraituko. Izen asko daude: Yeste, Christiano Ronaldo, Celades, Gerard... baina garestiegiak dira. Hegaletarako ere fitxatuko genuke baten bat".

NEREA, MARINA ETA IZASKUN | BERGARA

"Fitxaketa onena Nihat taldean gelditzea izango litzateke"

"Xabi Alonso berreskuratuko genuke. Ez zuen inoiz taldetik joan behar. Bere falta asko nabaritu da. Fitxaketa onena Nihat taldean gelditzea izango litzateke, baina Ronaldinho edo Etoo ekarrita ere ez ginateke kexatuko".

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Racing-Albacete	1-0
Espanyol-Athletic	2-0
Reala-Bartzelona	0-0
Mallorca-Betis	1-1
Numantzia-Deportivo	1-1
Zaragoza-Real Madril	1-3
At. Madril-Getafe	2-2
Vila-real-Levante	4-1
Valentzia-Osasuna	1-0
Sevilla-Malaga	0-2

SAILKAPEN OROKORRA

TXAPELDUNA
Bartzelona

TXAPELDUNEN LIGA
Bartzelona, Real Madril, Vila-real eta Betis

UEFA
Espanyol eta Sevilla

BIGARREN MAILARA
Levante, Numantzia eta Albacete

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1.**Bartzelona**	**84**	38	25	4	9	73	29
2.**Real Madril**	**80**	38	25	8	5	71	32
3.**Vila-real**	**65**	38	18	9	11	69	36
4.**Betis**	**62**	38	18	8	14	62	50
5.**Espanyol**	**61**	38	17	11	10	54	56
6.**Sevilla**	**60**	38	17	12	9	44	41
7.**Valentzia**	**58**	38	14	8	16	53	39
8.**Deportivo**	**51**	38	12	11	15	46	50
9.**Athletic**	**51**	38	14	15	9	59	54
10.**Malaga**	**51**	38	15	17	6	40	48
11. **At. Madril**	**50**	38	13	14	11	40	34
12.**Zaragoza**	**50**	38	14	16	8	52	57
13.**Getafe**	**47**	38	12	15	11	38	46
14.**Reala**	**47**	38	13	17	8	47	56
15.**Osasuna**	**46**	38	12	16	10	46	65
16.**Racing**	**44**	38	12	18	8	41	58
17.**Mallorca**	**39**	38	10	19	9	42	63
18.**Levante**	**37**	38	9	19	10	39	58
19.**Numantzia**	**29**	38	6	21	11	30	61
20.**Albacete**	**28**	38	6	22	10	33	56

Kiniela

KINIELA

1. Valentzia-Osasuna	1
2. Espanyol-Athletic	1
3. Numantzia-Deportivo	X
4. Mallorca-Betis	X
5. Zaragoza-Real Madril	2
6. At. Madril-Getafe	X
7. Sevilla-Malaga	2
8. Racing-Albacete	1
9. Reala-Bartzelona	X
10. Vila-real-Levante	1
11. Salamanca-Valladolid	2
12. Cadiz-Murtzia Hiria	X
13. Celta-Terrasa	1
14. Allaves-Cordoba	X

Athletic

Ilusioz beterik zegoen denboraldiari etekinik gabe esan diote agur

Intertotoan sartzeko aukera bakarrik zuen jokoan Athleticek eta hori ere joan egin zen azken partiduan

Jon Unamuno

Denboraldiko azken partiduak bi motatakoak izan daitezke: edo zerbait jokoan dago eta intentsitatea du partiduak edo ezer ez dago jokoan eta intentsitate eza bilakatzen da protagonista. Nahiz eta Athleticek intertotoa jokoan izan (benetako helburua al zen?), intentsitate gabeko partidua egin zuen. Ez zen txarra izan, baina jakina zen puntuak Bartzelonan gelditu ko zirela.

Lehen gola iritsi arte bi taldeek gol bana sartzeko aukera izan zuten. 19. minutuan Alexek faltaz sekulako jaurtiketa egin zuen, baina Danik bikain gelditu zuen baloia. Bost minutu beranduago Jonanek izan zuen partiduko aukerarik onena. Kameniren aurrean bakarrik gelditu zen, baina baloia gora jaurti zuen. Gola 33. minutuan etorri zen. Athleticeko jokalariek jokoz kanpokoa eskatzen zuten baloi batean etorri zen Velamazanen gola. Jokoz kanpokoa adierazi ezean, ez zegoen ezer egiterik gola saihesteko. Hala eta guztiz ere, oraindik ere Athleticek beste aukera garbi bat izan zuen. Jokaldi nahasi baten ostean, hainbat jokalarik baloia ukituta, Kameniren ezker zutoinean jo zuen baloiak.

BIGARREN ZATIA HASI ETA BEREHALA GOLA

Banakoarekin oraindik bazeuden berdinketarako, edo zergatik ez, garaipenerako itxaropenak. Hala ere, Espanyolek ateratako korner baten ondorioz, Lopok bigarren zatiko lehen minutuan bere taldeko bigarren gola sartu zuen. Hortxe amaitu zen partidua. Hortik aurrera Athleticen aldetik ez zen ezer aipagarririk ikusi.

BALORAZIOAK EGITEKO GARAIA

Urzaizen egoera tamalgarria dela ikusi genuen. Geldo, baloiaren zain beti, jokaldi errazak zail bihurtuz... ez zen aurtengo denboraldian aldarrikatutako *Nafar errege handia* izan atzokoan. Bestalde, Ezkerroren papera ere aipatzekoa da. Azkeneko partidua zuen taldearekin eta, egia esan, ez zuen gauza handirik egin. Orain opor luzeak datoz eta aldaketak ekarriko dituen uda izango da. Ea hurrengo denboraldian aurtengoan izandako ilusio bera mantentzen den eta, bide batez, ilusio hutsean gelditu beharrean, ilusioa errealitatea bilakatzen den. Kolore gorria izan duen aste honetan, esaldi famatu bat aipa daiteke Athleticen izenean: *You´ll never walk alone*.

ESPANYOL
2-0
ATHLETIC

Espanyol | Kameni, Ibarra (Maxi 68. min.), Lopo, Soldevilla, David Garcia, Ito, Jarque, Alex, Maxi, De La Peña (Fredson 71. min.), Velamazan (Coro 63. min.) eta Tamudo.

Athletic | Arantzubia, Iraola, Luis Prieto, Murillo(Lakruz 35. min.), Felipe, Orbaiz, Tiko, Solabarrieta, Jonan (Yeste 58. min.), Ezkerro eta Llorente (Urzaiz 58. min.).

Golak: 1-0 Toni Velamazan (33. minutuan). 2-0 Lopo (46. minutuan).

Epailea: Lizondo Cortes. Ateratako txartelekin lortutako diruarekin, opor politak egingo ditu epaileak.

Bikain

FELIPE
Oso gutxi jokatu duen jokalaria izanda, maila ona erakutsi zuen ezker hegalean. Gogo handiena berak ipini zuen, nahiz eta taldekideei ez kutsatu gogo hori.

Kaskar

URZAIZ
Azken partiduetan ematen diharduen maila beldurtzekoa da. Geldo dabil baloiarekin eta baloirik gabe. Udan forman jarri beharko da.

Bigarren golarekin amaitu zen partidua talde zuri-gorriarendako

Ea hurrengo urtean aurtengo ilusioak mantendu eta errealitate bilakatzen diren

AINTZANE AGIRRE

Ekain Garinek sartu zuen mahoneroen lehen gola UDAren aurkako partiduan zapatuan.

Bergarak garaipenarekin esan zion agur Preferenteri

BERGARA
2-1
UDA

Bergara | Egaña (Sesma 81. min.), Arana, Berraondo, Lete, Maiztegi (Balzategi 79. min.), Otero, Alzola, Cabanillas, Garin, Alejandro (Crespo 26. min.) eta Lazpiur.

UDA | Gaizka, Gorka, Ersotarbe, Iker, Ibarrondo (Raul 60. min.), Alvaro, Iñaki (Espinosa 45. min.), Nuñez (Arriaga 62. min.), Azkue (Dublan 44. min.), Andoni eta Errasti (Orueta 45. min.).

Golak: 1-0 Garin. 1-1 Espinosa. 2-1 Maiztegi.

Epailea: Ezkurdia jauna. Nahiko ondo aritu zen. Ez zuen aparteko arazorik izan.

Jokin Etxebarria

Gutxienez, Agorrosinen bildu zen jende apurrak denboraldia garaipenarekin agurtzen ikusi zuen bere taldea.

Partidu polita ikusteko aukera zegoen preferente mailako denboraldiari amaiera emateko: derby bat. Hori bai, saltsarik gabeko derby bat. Izan ere, ez batak ez besteak ez zuen dagoeneko ezer jokoan. Bergarak aspaldi esan zion agur mailari, eta UDAk joan den astean lortu zuen matematikoki mailari eustea.

Askotan, inork ezer jokoan ez duenean jokatzen dituzte partidurik politenak. Tentsiorik gabe jokatzean askotan zure onena ateratzen duzu, baina zapatuan ez zen horrelakorik gertatu. Partidu nahiko txarra izan zen, bigarren zatiko lehen ordu laurdena kenduz gero. Ez talde batak ez eta besteak ere ez zuen bere onena eman, nahiz eta Bergara UDA baino gehiago izan zela esan beharra dagoen, eta garaipena merezitakoa izan zen.

GOLAK BIGARREN ZATIAN

Lehen zatia aspergarria izan zen oso. Joko politik ez, eta bergararrek aukerak sortzen bazituzten ere, garbiegiak ez ziren izan, eta ez zuten golik sartzerik lortu. Zati honetan azpimarratzeko bakarra, talde bakoitzak egindako penalti bana, epaileak adierazi ez zituenak.

Bigarren zatia beste bizigarri batekin hasi zen. Bergarak nagusi izaten jarraitzen zuen, eta Garinek egin zuen etxekoen gola. Pozak ez zuen gehiegi iraun, jarraian, Espinosak egundoko gola egin zuen-eta Aretxabaletakoendako. Hala ere, Maiztegik, taldetik agurtu aurretik, bere gola egin zuen eta merezitako garaipena eman zion etxeko taldeari.

• NOLA IKUSI DUZUE PARTIDUA?

XABIER LETE | BERGARA

"Partidu lasaia izan da, tentsio gutxikoa"

"Partidu lasaia izan da, tentsio gutxikoa, biotako inork ere ez zuelako ezer jokoan. Gu partidua irabaztera irten gara, gutxienez, zaleak garaipen batekin agurtzeko, eta uste dut merezita irabazi dugula. Denboraldiari dagokionez, ezin esan ona izan denik, mailaz jaitsi gara eta. Datorren urtean, ikusi egin behar."

IBAN ESPINOSA | UDA

"Nagusiekin jokatu dudan lehen partidua izan da"

"Niretzat partidu polita izan da, nahiz eta irabazterik ez dugun lortu. Nagusien taldearekin jokatzen dudan lehen partidua izan da, eta gainera gola sartzea lortu dut. Pena da askorako balio ez izana. Denboraldiari dagokionez, nik gazteen taldean jokatu dut, baina gutxienez nagusiek preferentean mantentzea lortu dute."

Denboraldia porrotarekin agurtu zuen Aloñak

ANAITASUNA
2-0
ALOÑA

Anaitasuna | Astigarraga, Rocha, Juaristi, Aranbarri, Larrax, Romero (Iban 87. min.), Mujika (Zabala 73. min.), Bastida (Aramendi 84. min.), Mendizabal (Egidazu 85. min.), Sudupe eta Aristi (Roberto 65. min.).

Aloña | Gil, Aratz, Igartua (29. min.), Sanchez, Olalde, Astola, Garai, Zubia (Jonan 45. min.), Albizu, Garmendia (Moiua 45. min.) eta I. Arregi.

Golak: 1-0 Bastida. 2-0 Sudupe.

Epailea: Kepa Sanz jauna. Partidu erraza izan zuen epaileak. Etxeko taldeak ez zuen txartel horirik ikusi eta Aloñari bi txartel hori atera zizkion.

A.G.

Azken partiduetako bide bera jarraitu zuen Aloñak atzoko partiduan. Jokalari gutxirekin joan zen Azkoitira, tartean Zubia eta Maiztegi gazteak. Gorpuzti jaiak izanda eta mailari dagoeneko eutsita, euren egoera fisikoa ere ez zen batere ona.

Lehen zatian sartu zituzten azkoitiarrek partiduko golak. Aloña noraezean ibili zen lehenengo 45 minutuetan.

BIGARRENEAN HOBETO

Jokoa asko zabaldu zen bigarren zatian eta aukera gehiago ikusi ziren. Hala ere, markagailua ez zen gehiago mugitu eta porrotarekin bueltatu ziren Oñatira.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Lopezek (lurrean) gola sartu arren, Mondrak ezin izan zuen irabazi.

Zorterik gabe, Mondrak ezin Mutrikun irabazi

MUTRIKU
2-1
MONDRA

Mutriku | Osa, Arrocero, Oier, Tubal, (Endika 70. min.), Azkarate (Otxagabia 62. min.), Prieto (Fagoaga 65. min.), Zubiaurre (Ander 58. min.), Urritz (Osinalde 50. min.), Mikel, Agirretxea eta Garalde.

Mondra | Ander, Torres, Markel, Argider, Laspiur (Merkader 62. min.), Aranbarri, Loiti (Kepa 58. min.), Lopez, Heriz (Ina 50. min.), keixi eta Julen (Jokin 60. min.).

Golak: 0-1 Lopez. 1-1 Oier. 2-1 Fagoaga.

A.G.

Ez zuen zorterik izan Mondrak Mutrikun. Partidua menpean zutela etorri ziren, atezainaren huts bat eta epaileak etxekoei opatutako penaltia, eta azkenean ezin izan zuten irabazi.

Partidua ondo hasi zen. Mondrakoak jaun eta jabe ziren jokoan, eta Lopezek egundoko gola sartu zuen. Entrenatzaileari eskaini zion gola Iker Lopezek, izan ere, Josu Zubiak ez du datorren urtean taldean jarraituko.

Agur polita litzateke: garaipenarekin joan eta gainera jokalariek eskainitako golarekin. Baina ezin horrela izan.

Garaipena Mondrarentzako izango zela zirudienean –jokoz merezitakoa gainera– Ander atezainak huts egin zuen baloi bat urruntzerakoan eta bere atean sartu zuen. Eta horren ondoren, epailearen laguntzaileak bakarrik ikusitako penalti bat adierazi zuen Berasategi jaunak. Mutrikuarrek oparia ederki aprobetxatu zuten, eta hiru puntuak etxean utzi zituzten.

• OHOREZKO GAZTEAK

AINTZANE AGIRRE

MONDRA 1 - ANTIGUOKO 0

Denboraldiko azkeneko partidua ohorezko mailako txapeldunen aurka jokatu zuten etxekoek. Mondra ondo kokatuta atera zen, nahiz eta donostiarrak teknikoki hobeak izan. Lehenenengo zatiaren amaieran etorri zen partiduko gol bakarra. Bigarren zatiari dagokionez, Antiguoko taldeak gora egin zuen, baina ezin izan zuen golik sartu Mondra taldekoen atean. Partidu polita ikusi ahal izan genuen zapatuan, beraz, eta etxekoen garaipena.

• OHOREZKO GAZTEAK

Partidu txar batean, gol asko jasota etorri ziren UDAkoak

MARIÑO
4-1
UDA

A.G.

Denboraldiko azken partidu txarra jokatu zuten zapatuan Irunen, Mariñok eta UDAk.

Aretxabaletarrek ez zuten ezer jokoan, sailkapenaren erdian amaitu dute-eta denboraldia, baina irundarrek, irabaztea ezinbestekoa zuten mailaz ez jaisteko. Hasiera-hasieratik etxeko taldea gora begira hasi zen, garaipenaren bila, eta eman behar ez ziren ostiko batzuk tarteko, lehen gola haiek sartu zuten penalti baten bitartez. Lehen zatia horrela amaitu zen.

Bigarren zatian, etxekoek bigarren gola sartu zuten, baina UDAkoek ez zuten etsi, eta golaren bila joan ziren; baita lortu ere. Mariñokoak larri ibili ziren azken txanpan, baina beste bi gol gehiago sartu zituzten eta mailari eustea lortu zuten. UDAk, sailkapenaren erdian amaitu du denboraldia.

• INFANTIL F-8 (FINALA)

Partidu ona jokatu zuten arren, ez zuten zorterik izan

ALOÑA MENDI
3-4
VASCONIA

A.G.

Final polita jokatu zuten Aloñako infantilek Zumaian Vasconiaren aurka.

Bi taldeak aurrera begira atera ziren, eta nahiz eta aukera onenak oñatiarrenak izan, donostiarrak aurreratu ziren markagailuan. Vasconia, 0-3 aurreratu zen markagailuan, baina Aloñak erreakzionatu egin zuen, eta bi gol sartu zituen atsedenaldiaren aurretik, Josu Millasen bitartez. Bigarren zatian, Aloña berdinketaren bila atera zen, baina Vasconiak kontraeraso batean laugarrena sartu zuen. Markagailua kontra izan arren, Aloñakoak saiatu ziren, eta berriz ere hurbildu ziren markagailuan hirugarren gola sartuta, Ibai Morenoren eskutik.

Oñatiarrek ez zuten zorterik izan atearen aurrean, baina partidu ona jokatu zuten, nahiz eta garaipena Donostia aldera joan zen.

• LEHEN MAILA GAZTEAK

Agur tristea egin zioten denboraldiari eta Joserrari

UDA
0-5
LEHENGOKOAK

A.G.

Denboraldiari bukaera txarra eman zioten UDAko lehen mailako gazteek. Joserra Prieto entrenatzailearen agurra ere izan zen zapatuko partidua. Hala ere, mailari eustea lortu dute eta hori zen helburu nagusia.

Bi taldeek izan zituzten aukerak lehen zatian, baina golak kanpoko taldeak sartu zituen. Lehena 20. minutuan etorri zen. Oraindik beste bi gol sartu zituzten lehen zatian. UDA taldekoek besoak jaitsita, beste bi gol igo ziren markagailura Lehengokoaken alde.

Denboraldia hamargarren bukatu dute Joserra Prietoren mutilek. Azken partiduetan, denboraldian gutxi jokatu dutenak aritu dira euren jokoa erakusten. Zapatuan, Alex Calzon eta Julen Moreno kadeteek jokatu zuten. Erakutsitako jokoaren arabera, etorkizuna badagoela aurreikus daiteke.

Ikusitakoak ikusita

Jasone Zabala

DENBORALDIKO BALANTZEA

Denboraldia amaitu da Debagoieneko gure taldeentzat. Bergararena jakina da, mailaz jaitsiko dela. Mondrakoek, nahiz eta denboraldia goiko aldean amaitu duten, zuzendaritza berria sartu berri denez, aldaketa ugari espero dituzte taldean datorren denboraldirako. Aloña azpi-azpitik gorantz igo den taldea izan da; gainera, jokalari gazteekin, denboraldia bikain amaitu dute oñatiarrek. UDAk, berriz, entrenatzaile aldaketa egin zutenetik beste gogo batekin jokatu du, eta azken txanpa ona egin dute.

Emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **Tolosa**	**83**	38
2. **EHU**	**78**	38
3. **Zarautz**	**67**	38
4. **Ordizia**	**66**	38
5. **Real Union**	**65**	38
6. **Trintxerpe**	**51**	38
7. **Pasaia**	**51**	38
8. **Mutriku**	**50**	38
9. **Mondra**	**50**	38
10. **Zestoa**	**49**	38
11. **Touring**	**48**	38
12. **Aloña Mendi**	**48**	38
13. **Aretxabaleta**	**47**	38
14. **Anaitasuna**	**47**	38
15. **Hondarribia**	**45**	38
16. **Orioko**	**43**	38
17. **Beti Gazte**	**42**	38
18. **Urola**	**42**	38
19. **Bergara**	**39**	38
20. **Oiartzun**	**24**	38

Emaitzak

Urola-Orioko	3-0
Ordizia-Beti Gazte	1-1
Mutriku-Mondra	2-1
Oiartzun-Pasaia	2-3
Bergara-UDA	2-1
Hondarribia-Touring	0-0
Trintxerpe-Zarautz	1-2
Real Union-Zestoa	4-1
Anaitasuna-AloñaM.	2-0
EHU-Tolosa	1-2

OHOREZKO GAZTEAK

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **Antiguoko**	**77**	34
2. **Union Txiki**	**66**	34
3. **Zarautz**	**65**	34
4. **Zumaiako**	**64**	34
5. **Sto. Lizeoa**	**60**	34
6. **Anaitasuna**	**54**	34
7. **Ordizia**	**52**	34
8. **Eibartarrak**	**51**	34
9. **Hondarribia**	**50**	34
10. **UDA**	**44**	34
11. **Mondra**	**43**	34
12. **Martutene**	**43**	34
13. **Mariño**	**39**	34
14. **Urola**	**39**	34
15. **Aurrera**	**37**	34
16. **Aldapetarrak**	**35**	34
17. **Euskalduna**	**24**	34
18. **Dunboa-Eguzki21**		34

Emaitzak

Urola-Ordiza	1-1
Mariño-UDA	4-1
Mondra-Antiguoko	1-0
Eibartarrak-Aurrera	4-5
Aldape.-Martutene	1-2
Hondar.-Union Txiki	0-3
Sto. Lizeoa-Zarautz	2-5
Euskalduna-Dunboa	5-0
Zumaiako-Anaita.	1-1

BESTELAKOAK

LEHEN MAILAKO GAZTEAK

Bergara-Urki	14-1
UDA Arizmendi- Lengokoak	0-5
Segura-Arrasate	4-2

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Hernani-Aloña Mendi	2-0
Bergara-Kostkas	0-2
Zarautz-Arrasate	6-0

BIGARREN MAILAKO KADETEAK (FINALA)

Bergara-Antzuola	1-3

INFANTIL F-8 (AZKEN FASEA)

Aloña Mendi-Vasconia	3-4

• BIGARREN MAILAKO KADETEAK KOPAKO FINALA

AINTZANE AGIRRE

BERGARA 1 - ANTZUOLA 3

Zapatuan jokatu zuten Bergarako eta Antzuolako kadeteek kopako finala, eta garaipena Antzuolara joan zen. Partidu polita zen jokalariendako; izan ere, egunero ez dira finalak jokatzen. Partidu zikina izan zitekeelako beldurra zegoen, baina errealitateak guztiz kontrakoa erakutsi zuen. Bergara aurreratu zen markagailuan. Hala ere, Antzuolak hortzak erakutsi zizkion partiduari eta buelta ematea lortu zuen. Bergararen atzealdea gaizki ibili zen eta antzuolarrek ondo aprobetxatu zituzten opariak. Zorionak Antzuolari!

MUNDUKO KOPAI MAILA HANDIKO KORRIKALARIEN ARTEAN ROBB JEBB INGELESA NAGUSITU ZEN

3:54:18 markarekin gailendu zen Rob Jebb

Munduko Kopako lehen proba izanda, hainbat lekutako korrikalari asko etorri ziren; horren lekuko da irabazleen jatorria

Jon Unamuno

JON UNAMUNO

Maratoia egin ostean, ia ez zitzaion indarrik gelditu Rob Jebbi xanpain botila zabaltzeko.

Ingalaterratik eta Frantziatik etorri dira aurtengo edizioko irabazleak. Gizonezkoetan 30 urteko Rob Jebb ingelesa nagusitu zen. Aurreko urtean Mario Poletik egindako marka suntsitu zuen. Emakumeetan Corinne Favre frantziarra heldu zen lehena helmugara. Gertu izan zituen arerioak, baina bere erresistentziari esker, helmugara lehenengo sartu zen.

Iragarrita zegoen atzoko probaren mailak ez zuela zerikusirik izango aurreko urtekoarekin. Korrikalari asko eta onak etorri ziren eta, horregatik, herrikoiak diren hainbat korrikalarik proban parte hartzeko lekurik ez zuten izan. Horixe da ordaindu beharreko prezioa.

Ionut Zinca (Aloña Mendi igoerako irabazlea) izan zen lehena erritmo bizia ezartzen. Ordurako ikusten zen Rob Jebb oso indartsu zegoela; izan ere, bera izan zen Ionuten erritmoa jarraitu zuen bakarra. Kilometroak pasatu ahala, Ionutek pot egin zuen eta ingelesari garaipenerako bidea erraztu egin zitzaion. Jaitsieran ere gogor mantendu zen eta helmugan marka ikusgarria ezarri zuen. Emakumeetan Corinne Favre frantziarrak lasterketa oso erregularra egin zuen eta amaieran erregulartasunaren fruitua garaipen bilakatu zen.

Atzerritik etorri dira aurtengo irabazleak, Ingalaterratik eta Frantziatik

Leire Ezpeleta eta Asier Urdanpileta debagoiendarrek hamargarren bukatu zuten

GEUREAK MARATOIAN

Aurreko urtean Zuhaitz Ezpeleta podiumeko bigarren kajoitxora igo zen. Aurten ezin izan du proba amaitu. Atzokoan bai Asier Urdanpiletak eta bai Leire Ezpeletak hamargarren bukatzea lortu zuten. Isa Casado eta Aritz Kortabarria ere ondo aritu ziren.

Emaitzak

LEHENENGO GIZONEZKOAK

1. Rob Jebb	(3:54:18)
2. Simon Booth	(3:59:11)
3. Fabio Bonfanti	(4:01:00)
4. Fulvio Dapit	(4:02:51)
5. Mario Poletti	(4:03:17)
6. Nick Sharp	(4:03:52)
7. Javi Olabarria	(4:15:29)
8. Iker Karrera	(4:21:05)
9. Jesus Mari Romon	(4:22:17)
10. Asier Urdanpilleta	(4:22:43)
11. Eduard Barcelo	(4:23:33)

LEHENENGO EMAKUMEZKOAK

1. Corinne Favre	(5:03:57)
2. Ester Hernandez	(5:06:25)
3. Sharon Taylor	(5:08:37)
4. Anna Serra	(5:12:59)
5. Emanuela Brizio	(5:18:43)
6. Roser Español	(5:18:49)
7. Nerea Amilibia	(5:19:40)
8. Alicia Ormazabal	(5:46:53)
9. Marta Garcia	(5:59:32)
10. Leire Ezpeleta	(6:00:37)
11. Isa Casado	(6:12:32)

GIZONEZKO BETERANOAK

1. Massimo Colombo	(4:01:52)
2. Marco Rusconi	(4:09:00)
3. Jesus Mª Olabarria	(4:25:01)
4. Josean Estenaga	(4:26:35)
5. Andres Unzurrunzaga	(4:34:26)
6. Martin Irizar	(4:39:54)
7. Jose Luis Albizuri	(4:43:40)
8. Alberto Zerain	(4:45:18)
9. Luis Mari Ugarte	(4:57:12)
10. Joxean Kerexeta	(4:57:24)
11. Luis Ezeizabarrena	(5:02:53)

EMAKUMEZKO BETERANOAK

1. Teresa Forn	(5:38:06)
2. Helena Perez	(6:00:25)
3. Irene Sarrionandia	(6:18:05)

• IRABAZLEAK ETA DEBAGOIENDARRAK

ROB JEBB | INGALATERRA

"Ondo hasi dut Munduko Kopa eta nire azken helburua hori izango da, Munduko Kopa eskuratzea"

Egindako markarekin ez zegoen harrituta Robb: "Asko eta ondo entrenatu naiz denboraldi honetan. Ondo hasi dut Munduko Kopa eta nire azken helburua hori izango da, Munduko Kopa eskuratzea. Maratoi hau oso gogorra izan da, desnibel handiak zituen eta, bai gora eta bai behera asko sufritu dut", adierazi zuen irabazleak.

CORINNE FAVRE | FRANTZIA

"Nire martxan hasi dut lasterketa, eta horrela, gero eta hobeto aurkitu naiz nire gorputzarekin"

Zoriontsu zen Corinne helmugan: "Asko gustatzen zaizkit horrelako proba gogorrak. Korrika, bizikletan, eskalatzen eta beste hainbat kiroletan dihardut. Gaurkoan, nire martxan hasi dut lasterketa, eta horrela, gero eta hobeto aurkitu naiz nire gorputzarekin", esan zuen irribarrea aurpegitik ezin kendu zegoela.

ASIER URDANPILLETA | OÑATI

"Nire maila eman dut eta gustura nago; izan ere, lasterketara punta puntako korrikalariak etorri dira"

Hamargarren sailkatu zen oñatiarra eta postuarekin gustura zegoen: "Nire maila eman dut eta gustura nago; izan ere, lasterketara punta-puntako korrikalariak etorri dira. Hasieratik erritmo gogorra ezarri dute eta ezin izan diet jarraitu. Nortzuk etorri diren jakinda, pentsatzen nuen lau ordutik jaitsiko zirela".



ARITZ KORTABARRIA | ARRASATE

"Hasieratik abiadura bizian alde egin dute faboritoek eta nik nire martxan joatea erabaki dut"

Helmugara probako bi kiderekin heldu zen Aritz: "azken kilometroak elkarrekin egin ditugu". Bestela, hasieratik bere erritmoan egin zuen lasterka: "Hasieratik abiadura bizian alde egin dute faboritoek eta nik nire martxan joatea erabaki dut. Giroak ere asko lagundu digu korrikalarioi", adierazi zuen arrasatearrak helmugan.

AURREMATRIKULAZIO EPEA
ekainaren 1etik 8ra

LANBIDE HEZIKETA
heziketa zikloak

ERDI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOAK

- Ibilgailuen elektromekanika
- Kontsumorako ekipo elektronikoak
- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa
- Erizaintzako zaintza osagarriak

GOI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOAK

- Fundizioa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa
- Metal eraikuntzak

zure etorkizunerako
biderik onena

AENOR ER Empresa Registrada ER-0226/2/02
CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

Etxebarri auzoa z/g
Tel.: 943 79 79 00
Faxa: 943 77 09 55
20550 ARETXABALETA
ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com

IEFPS **Aretxabaleta** GLHBI

• GAZTE MAILAKO NESKAK (GIPUZKOAKO KOPAKO FINALA)

Zarauztarrek maila hobea erakutsi zuten finalean

Partidu hasieran eutsi zieten Aloñakoek zarauztarrei, baina bigarren zatian ezin

VERKOL ALOÑA
20-28
ZARAUTZ

Zarautz | Olasoaga, Tejera, Grijalba (2), Eizagirre, Urtiaga (10), Collantes, Arregi (4), Oiartzabal, Lopez del Moral (1), Martinez, Badiola (7), Agirre (2), Egaña (1) eta Izeta (1).

Verkol Aloña | Aranburu, Alabaolaza (2), Barrena (2), Mtz. Zuazo, Tercero, Sanchez, Urkia, Erostarbe, Urrutia (5), Sagasta, Lizarza (8), Elortza, Hernandez (3) eta Telleria.

Bost minuturo golak: 0-2; 4-4; 7-7; 9-10; 11-11; 11-14; 12-15; 13-19; 15-20; 18-23; 20-28.

JASONE ZABALA

Oñatiarrak saiatu ziren, baina amore eman behar izan zuten azkenean.

Jasone Zabala

Gipuzkoako kopako finala jokatu zuten oñatiarrek eta zarauztarrek zapatuan, Eibarko Ipurua kiroldegian. Partidu borrokatua izan zen lehen zatian. Aloñak lehen zatian joko ona erakutsi zuen, ederki defendatzen jardun zuen eta erasoan ere ederki. Lehen zatia berdinduta joan zen, eta oñatiarrek beraien jokoa hasierako minutuetan hegaletatik egin zuten. Lehen zatia 11na berdinduta amaitu zuten.

BIGARRENEAN ALOÑAK EZIN

Bigarren zatiko lehen bost minutuetan, 3 goletako abantaila lortu zuten zarauztarrek, Aloña Mendikoek galdutako baloiekin kontraerasoak egin ondoren. Handik aurrera, markagailuko abantaila handituz joan zen poliki-poliki zarauztarren alde, baina oñatiarrek ez zuten amore eman. Zarauzko taldea ederki aritu zen oñatiarren defentsa apurtzen, korrika gehiago egiten aritu baitziren, eta fisikoki freskoago zeuden. Aloñakoek ezin zuten kostaldekoen jokoa gelditu eta gero eta baloi gehiago galtzen zituen. Baina azkeneko 15 minutuetan, etsita egon arren, saiatu ziren joko polita egiten eta golen bat gehiago sartzen.

Azkenean, 8 goleko abantailaz irabazi zuten zarauztarrek. Dena den, oñatiarrak pozik egon daitezke, amaiera arte borroka egin baitzuten. Hori bai, Gipuzkoako kopa kostaldera joan zen, eta datorren urtera itxaron beharko dute.

Aloña hasieratik ezinean aritu zen

ZARAUTZ
28-16
VERKOL ALOÑA

Zarautz | Rey, Irureta (1), Roteta, Guridi,(5), Agirre (4), Esnal (3), Serras (1), Iruretagoiena (2), Urtiaga (1), Blazquez (3), Usabiaga (2) eta Egaña (6).

Verkol Aloña | Aranburu, Quintas, Maiztegi, Egaña, Herrero (11), Aranburu A., Matilla, Mugarza (3), Gomez, Lopez (2), Carmona, Guridi, Garcia eta Ugarte.

Bost minuturo golak: 1-1; 3-1; 5-1; 7-4; 10-5; 12-7; 15-9; 20-10; 22-10; 25-14; 26-16; 28-16.

Jasone Zabala

Kadete mailako kopako finala, Zarautzek eta Aloñak jokatu zuten zapatuan, hauek ere Ipuruan.

Urduri hasi ziren bi taldeak, baina zarauztarrak azkarrago sartu ziren jokoan; oñatiarrak, aldiz, baloia galtzen hasi ziren hasieratik.

ABANTAILA HASIERATIK

Kostaldekoek lehen momentutik hartu zuten abantaila markagailuan, eta oñatiarrak beti atzetik joan ziren. Defentsan nahiko ahul azaldu ziren Manu Garmendiaren neskak, nahiz eta aipatu behar den, epaileek ez zutela jarrera berbera eduki bi taldeekin faltak adierazterako orduan. Hala ere, hori ez zen aitzakia izan oñatiarrak egiten ari ziren joko txarra justifikatzeko. Lehen zatia, 5 goleko desabantailaz amaitu zuten oñatiarrek. Bigarren zatiak ere bide bera eraman zuen, eta abantaila handitu egin zuten zarauztarrek. Oñatiarren jokoa ez zen hobetu, eta ezin izan zuten ezer egin.

JASONE ZABALA

Kadeteek ere ezin izan zuten ezer egin zarauztarren jokoaren aurrean.

• LEHEN TERRITORIALA

AGRk porrotarekin esan zion agur denboraldiari

BIDASOA IRUN
28-24
AGR ARRASATE

A.G.

Lasaitasuna, bromak eta giro ederra. Horrela definitu zigun AGR Arrasateko entrenatzaileak arrasatearren azken partidua. Normala ere bada, ezer ez zutelako dagoeneko jokoan. Denboraldia luze egin da eta gainera, jokalari gehienak azterketetan murgildurik daudenez, gutxi entrenatu dira aste honetan.

Irundarrak lehenak gelditu dira igoera fasean eta datorren urtean Euskadiko txapelketan esku hartuko dute. Talde oso gogorra da. Lehen zatian gogor jokatu zuten, ez ziren arrasatearren jokoan erori eta atsedenaldira, 18-9ko emaitzarekin joan ziren. Bigarren zatian baina, eurak ere erlaxatu egin ziren. Arrasatearrek bigarren zatian hobeto jokatu zuten, nahiz eta intentsitaterik gabe jokatu, eta azkenerako markagailuan nahikoa hurbildu ziren etxekoengana. Hala ere, garaipena etxean gelditu zen azkenean.

HELBURU BERAK

Datorren urteari begira, jokalari gehienek jokatzen jarraituko dutela adierazi dutenez, aurtengo helburu bera izango dute arrasatearrek: Euskadiko txapelketara igotzea. Edo gutxienez, azken momentura arte horretarako borrokatzea, aurten gertatu den moduan.

Bestalde, zuzendaritza batzordekoek eskerrak eman nahi dizkie klubeko jokalari, entrenatzaile eta delegatu guztiei aurtengo denboraldian egindako lan onagatik.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN TERRITORIALA IGOERA FASEA

Bidasoa Irun-AGR Arrasate	28-24

GAZTE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO KOPA (FINALA)

Verkol Aloña-Zarautz	20-28

KADETE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO KOPA (FINALA)

Zarautz-Verkol Aloña	28-16

• KADETE MAILA

Azken laurdena erabakigarria

Arrasateko kadeteek arazo asko izan zituzten erasoan. Hala ere, defentsan egindako lana oso ona izan zen eta partidua aurrera atera zuten

MUGARRI ALKESA
57-51
GROS XAKE

Mugarri Alkesa | Aranzabal (2), Barberena (15), Gomez, Elorza, Arejolaleiba (7), Some (8), Merino (2), Ceciaga (16), Atxa (7).

Gros Xake | Ortega, Llorente, Astarloa (2), Lapuente, Indo (11), Camino, Franco (8), Fontecha (14), Lopez (2), Arroyo, De la Fuente (4), Garmendia (10).

Laurdenetako emaitzak: Lehen laurdena: 13-18. Bigarren laurdena: 29-26. Hirugarren laurdena: 43-42. Laugarren laurdena: 57-51.

Jokin Etxebarria

Denboraldia amaitzeko modu politena aukeratu zuten Arrasateko kadeteek: partidua irabaztea. Hala ere, ez zen erraza izan. Erasoan arazo dezente izan zituzten baloia mugitzerako orduan, eta eskerrak defentsan egindako lana nahiko ona izan zen, horrexek mantendu zituen eta partidu barruan. Imanol Ceciaga ez egotea –Gipuzkoako selekzioarekin jokatzen ari zen eta– asko igarri zuen Danel Ayastuik zuzentzen duen taldeak. Hala eta guztiz ere, azken laurden bikain batean, izandako arazo guztiak ahaztu eta joko polita erakutsita partidua irabazteko gai izan ziren.

PRESIOAREKIN EZIN

Partidua ez zuten ondo hasi etxekoek. Defentsan zulo askotxo uzten zituzten, eta erasora begira jartzen zirenean, kanpokoek kantxa osoan egindako presioarekin baloi asko galtzen zituzten. Arazoak ez ziren hor bukatu, kantxa erditik pasatzea lortzen zutenean, kanpoko jaurtiketa asko egitera behartuta sentitzen ziren, donostiarren zonakako defentsaren aurka jokatzen ez zutelako asmatu. Eskerrak taula azpian Beñat Barberena nagusi zen, eta bere erreboteekin eta saskiratzeekin taldea partiduaren barruan mantentzen zuen.

Bigarren laurdena ere berdintsu hasi zen. Baina etxekoen entrenatzailearen hutsarte baten ondoren, eta ikusita eraso estatikoarekin ezer ez zutela lortuko, korrika egiten hasi ziren etxekoak. Defentsan ere baloiak berreskuratzen hasi ziren, eta kontraerasoan irtenda min handia egin zuten, markagailuari buelta ematea lortuz.

Hirugarren laurdena nahiko parekatua izan zen. Erasoan berriz ere arazoekin ibili ziren, baina arazo horiek defentsako lan onarekin orekatzea lortu zuten eta markagailuan aurretik bukatu zuten.

Azken laurdenean gauzak asko aldatu ziren. Etxekoek baloia ederki mugitu zuten. Ceciaga jokoaren arduradun egin zen, eta Barberenarekin gehiago jokatu zuten. Gutxika-gutxika abantaila handitu zuten, defentsako lana ere ona zelako, eta azkenerako nahikoa erraz irabazi zuten etxekoek.

AINTZANE AGIRRE

Beñat Barberenak min handia egin zuen taula azpian.

Azken partiduan, garaipen ederra

ESKORIATZA
59-32
ALDAPETA

A.G.

Zapatuan Intxaurtxuetako kiroldegian denboraldiko azken partidua jokatuko zuten Eskoriatzako gazteek, Donostiako Aldapeta taldearen aurka. Partidu erraza izan zen hasieratik, denboraldiko onena.

Lehen laurdenetik erasoan bikain, eta defentsan ere ederki hasi ziren Javi Corbalen neskak. Taula azpian huts egindako saskiratzeetan, erreboteak hartzen zituzten eta bigarren aukeran asmatzen zuten. Kanpotarrak ez ziren jokatzera etorri, eta gogo gutxi erakutsi zuten partidu guztian zehar. Horregatik baloiak askotan galdu zituzten donostiarrek, eta etxekoek ederki aprobetxatu zituzten kontraerasoak korrika egiteko, eta puntu asko lortzeko.

DENBORALDIARI AGUR

Orokorrean, Eskoriatzako jokalari guztiek partidu ona egin zuten, eta nahiz eta denboraldian zehar gorabeherak izan, atzo ikusi zen gogoz amaitu dutela denboraldia, eta hemendik aurrera datorrena prestatuko dute.

AINTZANE AGIRRE

Denboraldia garaipenarekin amaitu zuten eskoriatzarrek.

Gorabeherak

GORA
Eskoriatzako neskak

Urte osoan zehar borroka egin ondoren, merezitako saria jaso zuten Eskoriatzako neskek. Joan den urtean mailaz igotzea lortu eta gero, aurtengo helburua mailari eustea zen, eta helburu hori bete dute. Partidu zailak izan ditu denboraldi guztian zehar taldeak, batzuk irabazi beharrekoak eta galdu egin dituztenak, eta beste batzuk ederki irabazi dituztenak; baina beti ere, duten guztia eman dute jokatu duten bakoitzean. Eta hori eskertzekoa da. Sufritu egin dute, azken jardunaldira arte ez dute eta maila mantentzea lortu, baina datorren urtean ere– merezita gainera– bigarren maila nazionalean jokatuko dute.

Araneta

Bergarako gazte taldeak denboraldi bikaina egin du. Azkenera arte egon da lehen postuaren atzetik. Azken partiduan Ordiziari irabazita lehen postua lortuko zuten, baina ezin izan zuten irabazi eta laugarren postuan bukatu dute denboraldia.

Mugarri Alkesako kadete taldea

Arrasatearrak, Bergarako gazteak moduan azken partidura arte ibili dira lehen postua lortu nahian. Azkenean baina hirugarren amaitu dute.

BEHERA
Lesioak

Denboraldian zehar lesio asko egon dira talde handietan. Mugarri Alkesak askotan joan behar izan du zortzi jokalarirekin partiduak jokatzera, eta Eskoriatzako taldean ere baja garrantzitsuak izan dituzte lesioengatik. Aipatzekoa adibidez Eukenek nola bukatu zuen denboraldia, orkatila bihurrituta.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

GAZTE MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ordizia-Araneta	55-45
Mugarri Alkesa-Lasao altz.	50-51
Aloña Mendi-Indulia	62-55

KADETE MAILA

Mugarri Alkesa-Gros Xake	57-51
Lacor-At. S.S.	0-20

GAZTE NESKAK

San Patricio A-Aloña Mendi	51-29
Eskoriatza-Aldapeta	59-32

Pilota

• PROFESIONALAK

Eugiri ederki lagundu zion Barriolak atzeko koadroetan, eta Titin ezinean aritu zen

Hasiera berdintsua izan zuten laurek, baina Eugi izan zen nagusi

EUGI-BARRIOLA
22-14
TITIN III-NALDA III

Jasone Zabala

Partidu polita ikusi genuen atzo Bergarako pilotalekuan. Eugi eta Barriolak garaipen ederra lortu zuten Nalda eta Titinen aurka. Eugi hasieratik hasi zen agintzen aurreko koadroetan, eta tanto bikainak egin zituen aurreko koadroetan pilota ederki moztuz. Titinek ahal zuen bezala erantzuten zuen. Ez zen egun ona izan atzokoa Triziokoarentzat. Naldari atzeko koadroetatik lana kentzeko asmoz aurreko koadroetan lanean aritu zen, baina ez zitzaizkion gauzak nahi bezala atera. Aoizko pilotaria, berriz, ederki aritu zen tanto amaieretan. Azkenean, Eugi eta Barriola irabazle.

Beste bi partidu ere izan ziren atzo, Bergaran. Larralde gazteak, bere debutean, garaipena lortu zuen Apeztegiarekin Galartza V.a eta Arroyoren aurka, 22 eta 15. Beste emaitza hau da: Etxaniz eta Arizmendik 18, Chafeek eta Urberuagak 13.

AINTZANE AGIRRE

Eugik, atzokoan, lan bikaina egin zuen aurreko koadroetan.

Adituen iritzia

"Eugik eta Barriolak errazago irabazi behar zuten. Nalda ez da gaizki ibili, baina lau pilotarietatik bera da maila baxuena duena, eta ezin dominatu ibili da. Eugi ederki aritu da. Titin ez dut oso ondo ikusi. Lau pilotarietatik ondoen Barriola ikusi dut nik".

PACO MARTINEZ | PILOTARI OHIA

"Partidu polita izan da, errimo handikoa. Lau pilotariak ederki aritu dira, baina maila gutxiago erakutsi duena Nalda izan da, beharbada. Eugi ederki ikusi dut, eta tanto bikainak amaitu ditu aurrealdean. Orokorrean partidu entretenigarria izan da".

ANTTON MAIZ | PILOTARI OHIA

Areto futbola

AINTZANE AGIRRE

Gernikak irabazi zuen Eskoriatzako hiruko areto futbol txapelketa.

Eskoriatzak maila ona eman zuen bera baino talde indartsuagoen aurka

Jokin Etxebarria

Urtero moduan, eta zaleei euren laguntza eskertzeko asmoz, Eskoriatzako areto futboleko taldeak hiruko txapelketa antolatu du asteburuan. Talde gonbidatuak Gernika eta Gasteizko Carniceria Sanz izan ziren. Talde gogorrak, 1.A mailan jokatzen dutenak biak. Gogorregiak akaso etxekoendako, kontuan hartzen badugu Eskoriatza aurten 1.B mailara igo dela.

Hala eta guztiz ere, etxekoek maila ona eman zuten. Partidu guztiak oso parekatuak izan ziren. Hala ere, azkenean, Gernika gelditu zen txapeldun. Bigarren Gasteizkoak izan ziren eta Eskoriatzak hirugarren bukatu zuen.

Errugbia

JON UNAMUNO

Luis Mari Etxaburu zenaren alargunari eta semeari oroigarriak eman zizkieten.

Luis Mari Etxaburu jokalari zena omendu zuten errugbi taldekoek

Jon Unamuno

Garagartzako errugbi zelaian izan zen hitzordua. Jokalari beteranoz osatutako taldeak batetik, eta senior eta jubenilez osatutako taldeak bestetik, Luis Mari Etxaburu omendu zuten. Nola? Luis Mariren pasioa zen errugbi partidu bat jokatuz. Azken emaitza 18-3 izan zen gazteen alde, baina hori gutxienekoa zen. Partiduaren atsedenaldian, alargunak eta semeak oroigarri bana jaso zuten klubaren eskuetatik.

PARTIDUAN EZ ZEN AMAITU OMENALDIA

Partidua bukatu ostean, kalean buelta bat eman zuten bertaratutakoek, eta, ondoren, Casino elkartean bazkaria izan zuten.

Labur

Gipuzkoako Selekzioarekin emaitza txarrak

Andorran egon dira, asteburu honetan, Jonathan Perez eta Lander Errasti Gipuzkoako Selekzioarekin, Andorra eta Kataluniako Selekzioen aurka lehiatzen. Ez dira oso pozik etorri, emaitzak ez dira eta onak izan. Jonathan Perezek 4,20 metro saltatu zituen, bere markatik nahiko urrun. Ez zen hobeto ibili Lander Errasti, 3,60 metroko saltoa eginda. Hala ere, nahikoa egin zutela esan ziguten. Izan ere, euria izan zuten lehiaketa guztian zehar, eta eguraldi txarrarekin, salto egiteak bakarrik nahiko meritu du.

Bestalde, aipatu behar da, datorren astean Espainiako gazte mailako atletismo txapelketa izango dela Valladoliden, eta han hiru arrasatear izango direla. Pertika jauzian Lander Errastik hartuko du parte, Jon Ander Amadok 400 metroko hesi lasterketan eta Markel Blancok 800 metrotan. Hirurek Euskal Selekzioarekin jardungo dute.

Juan Jose Alvarez UNEDeko zuzendari eta abokatu gisa ezagutzen dugu. Horretaz gain, zumaiar hau EHUko irakasle eta Radio Euskadiko kolaboratzailea ere bada. Bere burua saltserotzat du eta horregatik eta Miguel Fuentesen laguna delako sartu da Denon Erreala plataforman. Futbolaria izandakoa da eta Realaren partidurik ez du galtzen. Amorrortu gustuko du eta taldeak egindako lana ona izan dela esan digu, baina Klubean gauza batzuk aldatu behar direla ere uste du.

JUAN JOSE ALVAREZ | DENON ERREALA PLATAFORMAKO KIDEA

"Realak, galdutako nortasun ezaugarriak berreskuratu behar ditu"



GOIENKARIA

Juan Jose Alvarezek Denon Erreala ekainaren 30ean garaile irtengo den esperantza du.

Jokin Etxebarria

Zer dela eta sartu zara Denon Erreala plataforman?

Urteetan futbolean jokatutakoa naiz. Realaren harrobiko taldeetan ere ibili nintzen, eta bertan egin nituen harremanak mantendu ditut. Denon Errealaren barruan daude harreman hauetako hainbat eta hainbat, eta gure artean denbora asko generaman hitz egiten Realak azkenaldian daraman norabide okerraz. Gainera, saltsero bat naiz, eta Miguel Fuentesen lagun ona.

Honetaz guztiaz gain, eskatu egin zidaten proiektuan barneratzea, eta zuzendaritza batzordean egoteko eskatu bazidaten ere, azkenean atzetik egongo den laguntza talde batean egongo naiz, bestela ere lan gehiegitxo daukat eta.

Beraz, adierazitako harremanagatik zaude plataforma honetan eta ez beste batean, ez?

Bai, lehenengo arrazoia harreman pertsonal hori da. Baina uste dut, era berean, Realak talde honek daukan filosofiara bueltatzea behar duela. Galdu diren nortasun ezaugarri horiek berreskuratu behar dira.

Atzera begiratu besterik ez dago hutsetatik ikasteko, eta aurrera begira jarrita, uste dut argi izan behar dela harrobiarekin bakarrik lehen mailan mantentzea oso zaila dela, baina fitxaketetan aukeratze prozesu ona egitea derrigorrezkoa da.

Zein izango litzateke zure lana?

Hauteskundeak heldu bitartean, nire lana proiektua ezagutaraztea da, bai erakundeetan eta baita akziodunen artean ere. Horretaz gain, juridikoki egin behar diren lanez ere arduratuko naiz.

Eta Denon Erreala hauteskundeetan garaile irtengo balitz, lehen asmoa da bigarren maila batean egongo den taldetxo baten partaide izatea. Lan berdintsua egingo nuke, baina itzalean.

Garaile irteteko esperantzarik izango duzu, ezta?

Ni irabazle irtengo garelakoan nago. Ilusioz betetako proiektua da, eta nik uste dut jendearen laguntza duela eta aurrera aterako dela. Soziologikoki, inkestek horrela diote, zaleen gehiengoa gurekin dago; baina merkatuak esaten du pisuzko akziodunak behar direla aurrera egiteko eta horretan gabiltza orain lanean.

Eta zeintzuk dira zuen proiektuaren ardatz nagusiak?

Lehenengo gauza Realaren egoeraren diagnostiko objektibo bat egitea da. Izan ere, zurrumurru eta morbo gehiegi dago orain honen inguruan.

Gauza batzuk argi daude. Adibidez, Realak ezin du Real Madridek edo horrelako talde handiek duten egitura eduki, langileei dagokionez. Kostua gehiegi handitzen duzu, eta arlo horretan, Realaren errealitatera lotu beharko gara.

Kirol mailari dagokionez, Realak galduta dituen nortasun ezaugarriak berreskuratzea izango litzateke lehen eginbeharra. Harrobian gaur egun lan ona egiten dabiltza, eta horrekin jo behar dugu aurrera.

Hirugarren pausoa institutzionala da. Argi eta garbi dago, konfiantza berreskuratu beharra dagoela Gipuzkoako eragile ekonomikoekin.

Lan gogorra dago egiteko, baina gustura egingo den lana da. Eta argi utzi nahi dudana da, inor ez dela lan honetaz biziko.

Realak duen defizita gainditzeko hainbat aukera sortu dira: Nihat saldu, kapitala handitu, Gipuzkoarena... Zeinen aldekoak zarete zuek?

Garbi dago taldeko atzerritar onena ezin dugula saldu. Taldearentzat eta zaleentzat kolpe gogorra izango litzateke eta.

Horrek ekarriko luke epe laburrean dirurik ez irabaztea. Baina beste modu batzuk ere badaude. Esaterako, kapitala handitzea derrigorrezkoa da. Ez bakarrik dirua irabazteko, baizik eta, Realaren egitura errealitatera lotzeko. Argi dagoena da, gaur egungo kapitala, Reala bezalako erakunde batentzat oso txikia dela. Baina handitze hau, denborarekin eta garbitasunez egin beharreko gauza bat da.

Eta Gipuzkoarenari dagokionez, itxaron egin beharko da oraindik.

Zein nota jarriko zenioke aurtengo Realaren denboraldiari?

Objektiboa izanda, eta pentsatuz urtarrilean denon burutik pasatu zena, ez nintzateke nahikoarekin bakarrik gelditu-ko, baina ezta oso ongi batekin ere. Seiaren inguruan ibiliko litzatekeela uste dut.

Eta Amorrortu?

Realaren espirituarekin bat datorren pertsona da. Lehen taldearen entrenatzaile lanetan txinpartak atera ditu ezer ez zegoen lekutik, eta taldearentzat beharrezkoa dela uste dut.

"Konfiantza berreskuratu beharra dago Gipuzkoako eragile ekonomikoekin"

"Nihat saltzea kolpe gogorra izango litzateke taldearentzat eta zaleentzat"

KULTURA

Aisialdia eta Zerbitzuak

• Kerobia nafarrek kontzertua egin zuten zapatuan Bergarako gaztetxean | 24
• 'Ezetz lepoa jarri' antzezlan arrakastatsua ekainaren 4an, Aretxabaletan | 27

Patxi Perezek 'Alma insumisa' nobela aurkeztuko du eguaztenean Arrasaten | 27

IPARRALDEKO LAGUNEKIN BAT EGINIK



AINTZANE AGIRRE

Emanaldirako Iparraldeko kantu zaharrak aukeratu zituzten bereziki Hiru Truku taldeko kideek.

IPARRALDEA OÑATIN I ASTEBETEZ LEIHO BAT ZABALIK LAPURDI, NAFARROA BEHEREA ETA ZUBEROARA

Oñatiko herria harremanak sendotzen mugaz bestaldeko euskaldunekin

Euskal Herria txikia da, baina gure artean gero eta harreman gutxiago dugula nabarmena da. Ipar Euskal Herriak bere tartea izan du asteon Oñatin. Agian, laster Oñatik izango du berea Iparraldean

Larraitz Zeberio

"Horrelakoak gehiagotan egin beharko genituzke". Behin baino gehiagotan entzun dira hitz hauek Oñatin asteburu honetan. Martitzenaz geroztik, Laixan euskara elkarteak antolatuta, Ipar Euskal Herritik etorritako haur ikuskizunak, film laburrak, musika taldeak, dantzak eta jakiak egon dira Oñatin.

Laixanek astean egingo du ekimenaren balorazio bilera, baina antolatutako ekitaldiek harrera ona izan dutela aurreratu digu elkarteko Amaia Kerexetak. "Bariku eta zapatuko kontzertuek jende asko bildu zuten; baita zapatu goizean herriko plazan egindako janari dastatzea eta jaialdiak ere". Amaiak gogoratu digun moduan ekintza hauetan batutako dirua Iparraldeko lau irratiei emango zaie.

KANTALDI GOXOA

Iparraldea Oñatin ekitaldi multzoari amaiera emateko zapatuan kantaldia egin zuten batera Zubikoa kiroldegian Hiru Trukuk, Maddi Oihenartek eta Etxartarrek.

Kantaldi orekatua izan zen, kontuan harturik musikari bat baino gehiagoko emanaldiak sarritan amaigabe bihurtzen direla. Ez zen Oñatiko kantaldiaren kasua izan.

Iparraldeko kantariek zabaldu zuten kontzertua. Niko Etxartek, bere aitak eta koinatuak zuberotar abesti herrikoiak abestu zituzten. A capella eskaini zituzten, Pirinioetako artzainen kantatzeko era naturalean. Ondotik, Maddi Oihenartek hartu zuen lekukoa, Bernard Etxepare, Lizardi eta beste hainbat poeta euskaldunen olerkiak abesteko.

> Mugak desagertu dira baina inoiz baino harreman gutxiago dugu Iparraldearekin
>
> Ekintza hauetan batutako dirua Iparraldeko lau irratiei emango zaie

Hiru Trukuren lehen txanda iritsi zenean ere Ipar Euskal Herriko kantuak entzun genituen. Lapurdi eta Nafarroa Beherekoak gehien bat. Bigarren txandan bertako kantu zaharrak eskaini zituen hirukoteak. Kontzertu amaieran zazpi musikariak batera ere aritu ziren.

"Zinez gustatu zaigu gaurko emanaldia", esan zigun Niko Etxartek. "Hiru talde oso ezberdin ginen eta formula polita topatu dugu kontzertua astunegia ez egiteko. Publikoaren berotasuna sumatu dugu. Oso pozik egingo ditugu gaurkoan aitak eta biok etxerako 340 kilometroak".

IPARRALDEKO LAGUNEKIN BAT EGINIK

• IPARRALDEKO LAGUNEKIN EGINDAKO BESTE EKITALDIAK

JANARI DASTATZEA. Zapatu goizean Iparraldeko eta Hegoaldeko janari dastatzea egin zen herriko plazan. Ahatekia, Irulegiko arnoa, behi eta ardi gasna eta txerrikia ekarri zituzten iparraldeko lagunek. Oñatiko Etxaluze elkarteko kideek taloak prestatu zituzten eta sagardoa ere nahi beste egon zen. Hamaiketako bikaina egiteko aukera izan zen beraz Oñatin.

BARRIKADA SINBOLIKOA. Unibertsitate aurrealdean barrikada sinboliko batekin egin zieten harrera Oinatz dantza taldeko umeek Iparraldetik etorritako Aintzindariak elkarteko dantzariei. Zuberoako maskaradetan egiten den moduan dantza izan zen bi taldeen arteko lehen hartu-emana. Iparraldeko dantzariekin batera Baigorriko gaiteroak, Amikuzeko joaldunak eta Ezpeletako fanfarea iritsi ziren Oñatira.

IKUSKIZUNA. *Beltzeria & Cia* ikuskizunean 15 bat antzezle aritu ziren Asisko Urmeneta eta Marko Armspach komikilariek antzerki lanean aipatutako gaien inguruan euren marrazkiak egiten zituzten bitartean. Ikusleen lehenengo ahalegina belarriak antzezleen euskalkira ohitzeko izan zen, baina laster lortu zen helburua. Antzezleek hainbat gai jorratu zituzten ikuskizunean, esaterako euskararen egoera Iparraldean.

ETXARTARRAK KANTUAN. Hiru Truku eta Maddi Oihenartekin batera aritu ziren Niko, Dominika eta Robert. Zuberoako kantu herrikoiak eskaini zituzten zapatuko kantaldian. *A capella* aritu ziren zuberotarren kanturako gaitasun handia erakutsiz. Hirukoteak laster bereganatu zuen Zubikoan batutako publikoa; baita kantuan jarri ere. Eperra kantuak txalo zaparrada handia jaso zuen.

• JAIAREN BUELTAN BILDUTAKO ZENBAIT IRITZI

HERVE |
OÑATI

Oñatin bizi den lapurtar honi asko gustatu zitzaion zapatuko kontzertua. “Giro polita sortu dela uste dut. Horrelako gehiago egin beharko genituzke”. Goizeko azoka ere oso gustukoa izan zuen. “Kontaktua egotea da polita”.

ARÑO ETA MIXEL |
MITIRINA ETA SARA

Joaldun lanak egitera etorri ziren Ipar Euskal Herritik bi lagun hauek. “Oso ondo antolatutako jaia izan da”, esan ziguten. “Sobera ondo hartuak izan gara Oñatin. Gure alderdian ez dira horrelako harrera beroak egiten. Benetan, bihotzez eskertzen dugu”. Kontzertuan sortutako giro polita aipatu ziguten. Oñatiko Gorpuzti jaiak ere asko gustatu zitzaizkien.



NIKO ETXART |
ALTZÜRÜKÜ

“Formula polita aurkitu duzue Oñatin horrelako jai bat antolatzeko. Aita eta biok oso pozik itzuliko gara etxera, Oñatiko kontzertuan jendearen erantzuna eta berotasuna sumatu ditugulako. Emanaldi oso goxoa izan da”.

ARANTXA ETA SANTI |
OÑATI

Laguntzaile lanetan aritu dira bi oñatiar hauek asteburuan. “Jai honek balio izan du Ipar Euskal Herria Oñatira gerturatzeko” esan zigun Santik. “Honelako gauzak gehiagotan antolatu beharko genituzke, bai Ipar Euskal Herriarekin bai Nafarroarekin ere”. Arantxari asko gustatu zitzaion kontzertua. “Hiru talde ikusi ditugu kontzertu bakarrean”.

URTEURREN KONTZERTUA | JARDUN EUSKARA ELKARTEAREN 15. URTEMUGA OSPATZEKO KONTZERTUA EGIN ZUTEN BERGARAKO GAZTETXEAN

Blues, pop eta rock melodiak euskaraz entzun ziren Jardunen urteurren jaian

Bergarako Azkaiter Pelox, Elgeta eta Soraluzeko Matxura eta Iruñeko Kerobia izan ziren Bergarako gaztetxean

JON UNAMUNO

Kerobia nafarrak hirugarrenak izan ziren Gaztetxeko taula gainera igotzen. Neska koadrila polita batu zen lehenengo ilaretan.

Asteleheneko Goienkaria

Zapatu gauean, kontzertu batekin amaitu zituen Bergarako Jardun euskara elkarteak bere 15. urteurreneko ospakizunak. Hiru musika talde ekarri zituzten Bergarako gaztetxera: Iruñeko Kerobia, Elgeta eta Soraluzeko Matxura eta herriko Azkaiter Pelox. Kontzertua gaueko 11etan hasi zen eta goizaldeko ordu biak arte luzatu zen. Jardunen azken jaira 125 bat lagun elkartu ziren.

ZALE KONPLIZEAK

Gaueko 11etan herriko Azkaiter Pelox bakarlariak ekin zion emanaldiari. Gitarra berria aldean zuela, platinozko ileordea eta katu itxura ematen zioten betaurreko beltzak jantzi zituen Peloxek. Bikain aritu zen bergararra, festa berotuz. Dagoeneko bere zale taldea dauka Azkaiterrek eta igarri zen zapatuko emanaldian. Dantzan jarri zituen Bergarako gaztetxera elkartu zirenak bere blues doinuekin.

Bigarrena taulara igotzen Soraluzeko eta Elgetako kideekin osatutako Matxura taldea izan zen. Danbaka musika lehiaketan aurkeztu zituzten abestiak jo zituen hirukoak. Ondo aritu ziren eta, Anari bakarlariari keinua ere egin zioten. Azkaiter Peloxek lagundu zien horretan eta bi taldeak aritu ziren taula gainean.

IRUÑETIK ZUZENEAN

Kerobia talde gazteari egokitu zitzaion jaiari amaiera ematea.

> Gaueko 11etatik goizaldeko ordu biak arte iraun zuen Jardunjaiak gaztetxean

> Azkaiter Pelox bakarlariak giroa berotu zuen eta jendea dantzan jarri zuen

Goizaldeko ordu biak arte luzatu zuten Jardun jaia. Mikel, Xabi, German eta Carlos taulara igo zirenerako, aurrean zituzten, taularen lehenengo ilaretan, neska gazte mordoa. Argazki kamera digitalak aldean, Kerobiakideei argazkiak lapurtzen aritu ziren. Kantuan ere egin zuten zaleek, German teklatu jotzailea lagun zutela. Emanaldi polita egin zuten. Kontzertua berotu zuten nafarrek eta jendea kantuan eta dantzan jarri zuten. Euren lehenengo kanta bilduma luzeko abestiak aurkeztu zituzten.

Fitxa teknikoa

- **TALDEAK**

Kerobia: Mikel (bateria), Xabi (gitarra eta ahotsa), German (teklatuak) eta Karlos (baxua); Azkaiter Pelox (ahotsa eta gitarra); Matxura: Gorka (gitarra eta ahotsa), Loiola (bateria) eta Jone (baxua).

- **SOINUA**

1.000 wattio.

- **TEKNIKARIA**

Gor diskoetxeko Marino.

XABI HERNANDEZ | KEROBIA TALDEKO ABESLARIA

"Nafarrak derrigor gara eta euskaldunak garelako abesten dugu euskaraz"

Marijo Deogracias

Orain dela urtebete Arrasaten izan ziren eta harrezkero Debagoienean zuzenekorik egin barik egon dira. Xabik, taldeko abeslariak, kontatu digu nolako urtea izan duten.

Bi maketa eta bi musika lehiaketa eta... diskoa.

Hasieratik funtzionatu zuen kontu honek. Aurkeztu garen lehiaketetan emaitza duina izan dugu eta horrek eman digu aukera jendea ezagutu eta diskoa grabatu ahal izateko. Horri esker iritsi gara diskoa grabatzera, Gor diskoetxean.

Beharrezko izan zaizue hortaz lehiaketa irabaztea?

Lagundu egin digu, batez ere Euskadi Gaztearen lehiaketak.

Bi urte pasatu dira laukotearen 1. zuzenekotik. Zer aldatu da?

Diskoa grabatzeko aukera sortu arte, gure jarrera nahiko patxadazkoa izan zen, eta harrezkero jarrera perfekzionista garatu dugu, baina askorik larritu barik, jakina. Bestela, ibilbidean zortea izan dugu eta laguntza handia izan dugu.

> "Zuzenekoetan geldialdia egingo dugu San Ferminen ostera arte"

Nafarrak izateagatik eta euskaraz abesteagatik?

Nafarrak derrigor gara han jaio garelako, eta euskaldunak ere bagarenez euskaraz abesten dugu. Egia da Nafarroan beldur pixka bat egon dela euskaraz abesteko eta oso *metaleroak* izan direla taldeak, baina azkenaldi honetan hainbat talde ari gara euskaraz.

Bergarakoa azkeneko kontzertua dela iragarri duzue.

Datozen asteetan azterketei kasu egin behar diegu, hortaz geldialdia egingo dugu San Fermin ostera arte. Udan egingo dugu diskoaren aurkezpen bira.

Xabi Hernandez.

Talde melodikoa ei zarete.

Melodiari, armoniari, musika tresnek ematen duten guztiari eta, instrumenturik perfektuenari, ahotsari, garrantzia handia ematen diegu. Kanta batzuk entzuteko errazak dira eta, agian, horregatik du gustuko jendeak.

KUTXA

"Etxebizitza erosi edo saldu gura duenak aholkularitza zerbitzua eta laguntza ditu"

Etxebizitza erosi edo saldu behar duten guztien interesekoa izango den aholkularitza zerbitzu paregabea eskaintzen du Kutxak. Salerosketari hasieratik bukaeraraino jarraituko dion zerbitzua da, abantaila guztien berri emanaz, eta norberari egokitutako aholkurik onenak eskainiz. Itziar Irazusta da Kutxako Etxebizitza Zerbitzuko zuzendaria.

Zer da Kutxako Etxebizitza Zerbitzua?

Etxebizitza erosi edo saltzeko asmoa duten pertsona guztiei zuzendutako zerbitzua da. Salerosketa prozesu osoan laguntzeko asmoz sortu zen.

Zergatik eskaintzen duzue?

Etxebizitza baten salerosketa pertsona edo famili bizitzako finantza operazio garrantzitsuena izaten da. Gutxitan errepikatzen den operazioa da, eta kontzeptu berri eta ezezagun asko sortzen dira. Arrazoi hau dela eta, Kutxan oso konprometituta sentitzen gara egoera horretan dauden pertsonei prozesu osoan kalitateko aholkularitza zerbitzu bat eskaintzeko.

Zer nolako aholkularitza eskaintzen duzue zerbitzu honen bitartez?

Kutxan, bi helburu ditugu:

Batetik, bezeroaren neurrira finantziazio proiektu bat eskaintzea. Hala,finantza entitateak, historikoki, finantziaziorako bi aukera eskaini ditu: interes finko edo aldagarriko maileguak. Gaur egun berriz, Kutxan finantziazio mota asko dauzkagu bezeroak berak aukera dezan gehien egokitzen zaion produktua.

Eta bestetik, bezeroak salerosketagatik dauzkan abantailen berri izan dezala:

Salerosketa bakoitza erabat desberdina da, eta pertsonek lortu ditzaketen abantailak ere bai. Adibidez, babes ofizialeko, bigarren eskuko edo lehen eskuko erosketetan zergak desberdinak dira. Beraz, norberari egokitutako azterketa egiten diogu bezeroari, bere egoera ezagutu eta zerbitzu pertsonalizatua eskaintzeko asmoz. Adibide moduan, aholkularitza fiskalean arreta handia jartzen dugu.

Zer ulertu behar dugu aholkularitza fiskala esanda?

Salerosketarekin batera, etxebizitzaren eta titularraren ezaugarrien arabera, ordaindu beharreko zergak desberdinak dira. Kutxan horren gaineko informazio guztia ematen diegu, bezeroek eskura dituzten abantaila guztien berri izan dezaten.

Itziar Irazusta, Kutxako Etxebizitza Zerbitzuko zuzendaria.

Herritarren zerbitzura

Badira urte batzuk Etxebizitza Zerbitzua antolatu zuela Kutxak. Itziar Irazusta, bestalde, 1999az geroztik dabil etxebizitzaren gaineko lanetan, eta orain Etxebizitza Zerbitzuko zuzendaria da. "Jendeak etxea erosi edo saltzera zihoanean kontzeptu eta pauso berri eta ezezagun askoren aurrean aurkitzen zela ikusi genuen. Egoera horri irtenbidea topatu guran antolatu genuen gure zerbitzua", dio Itziarrek. Eta oso harrera ona egin zioten herritarrek zerbitzuari: "Gestioak egiteko orduan alboan izaten gaituzte, eskutik helduta joaten gara egin beharreko pauso guztietan, eta asko baloratzen dute hori".

Erosteko orduan bakarrik ez, etxebizitzarekin zerikusia duen edozein gestio egiten laguntzen du Kutxako Etxebizitza Zerbitzuak: Salmentako momentuan, etxea erosteko aurrezten pentsatzen hasi denean eta beste hainbat kasutan, Gipuzkoan dituen edozein bulegotara joan eta eskatu besterik ez dute interesatuek: laguntzeko gertu aurkituko dituzte.

"Kutxan finantziazio mota asko dauzkagu bezeroak berak aukera dezan gehien egokitzen zaion produktua"

"Kutxan, banakako estudioa egitea oinarrizkoa ikusten dugu, abantaila guztien berri emateko"

Horretaz gain, Haziendak etxebizitzaren erosketagatik deduzitzeko aukera ematen digu. 30.000 € baino gehiago buelta diezaguke urtero egiten dugun errenta aitorpenaren bitartez. Abantaila hauek aprobetxatzen has gaitezke etxea erosi baino 6 urte lehenagotik. Beraz, hurrengo urteetan etxea erosteko asmoa dutenek aukera izan dezakete deduzitzen hasteko.

Ondorioz, Kutxatik banakako estudioa egitea oinarrizkoa ikusten dugu, abantaila hauen guztien berri emateko eta bezeroak operazio guztian gure laguntza eta babesa eduki dezan.

Jendeak finantziazioa behar izaten du. Zer nolako mailegu motak eskaintzen dituzue?

Gaur egun, produktua pertsonaren arabera diseinatzen dugu. Aukera ugari ditugu eta bezeroa da norberari egokien datorkion produktua aukeratzen duena. Interes mugikorretik interes finkorako maileguak eskaintzen ditugu. Lehenengo kasuan, maileguaren kuota aldatu egingo da merkatuaren interesen eboluzioaren arabera. Bigarren kasuan, berriz, hasieratik eta behin betiko, interesak finkoak izaten dira, eta merkatuko interesen gorabeherek ez dute eraginik izango bezeroak ordaintzen duen kuotan. Honetaz gain, mailegu mistoak ere eskaintzen ditugu, interes finko eta mugikorren konbinaketa eginez. Era honetan, interesen igoeren aurrean, bezeroa babestuta geratzen da.

Interesatuta dauden pertsonak nola jar daitezke harremanetan zuekin ?

Zerbitzua interesatu guztien eskura jartzen dugu gure bulegoen bitartez; gaur egun, 120 dira Gipuzkoan.

HIPOTEKA ziurra

interes-tasen igoerek ez dizute erasango zeuk aukeratutako epealdian
(gehienez 15 urtekoan).

Eta noizbait ordainketak egokitu beharra gertatuko balitzaizu, honako aukera hauek ere badituzu:

ordaindu beharreko kuotaren zenbatekoa murriztekoa.
amortizazioaren ordainketa denboraldi batez etetekoa.

ETXEBIZITZA-ZERBITZUA
Etengabeko laguntza. Hasi eta buka.

www.kutxa.net

kutxa
zure diruaren balio erantsia

ARRASATE | JUAN ARTZAMENDIREN OMENEZKO KONTZERTUAK

Omenaldi oso hunkigarria Juanitoren senitarteko, lagun eta lankideendako

Juanito Artzamendi musikari arrasatearraren omenez asteburuan egindako hiru kontzertuak jendetsuak izan dira. Lagun, ikasle eta senide ugari elkartu da bertan

AINTZANE AGIRRE

Arrasate Musikal Bandak eta Goikobalu Abesbatzak eman zuten lehen kontzertua Monterronen.

AINTZANE AGIRRE

Zapatu iluntzean Juanitoren alaba Beatrizek zuzendu zituen Arrasate Musikal orkestra eta Goikobalu Abesbatza.

Larraitz Zeberio

Arrasate Musikaleko Banda eta Orkestra, Goikobalu abesbatza eta Parrokiako abesbatza... asteburuan musikari ugarik hartu dute parte Juanito Artzamendi zenaren omenez Arrasaten antolatutako hiru kontzertuetan.

Zapatu iluntzeko kontzertuan, esaterako, alaba Beatrizek zuzendu zituen Arrasate Musikal Orkestra eta Goikobalu abesbatza. Domekan, berriz, 92 urteko Juanito Artzamendiren anaia nagusi Davidek jo zuen organoa parrokiako meza kantatuan. Zuzendari lanak ere egin behar izan zituen Davidek Goio Eskibel zuzendariak azken orduko istripu txiki bat izan zuelako.

SENITARTEKOAK HUNKITUTA

Hirurak izan dira oso emanaldi hunkigarriak Juanito Artzamendiren senitartekoendako, alde batetik oso jendetsuak izan direlako, eta bestetik, Juanito zenaren lagun eta lankide askok parte hartu duelako bertan. Egitarauak osatzeko aukeratutako obrak entzutea ere oso berezia izan da Juanito ezagutzen zutenendako, gehienak berak egindako zein egokitutako lanak zirelako edo musikari arrasatearrak oso gustuko zituen obrak zirelako.

Bereziki nabarmentzekoa izan zen zapatu iluntzean Amaia antzokian egindako kontzertua. "Zirraragarria izan zen", esan digu Juanito zenaren alaba Beatriz Artzamendik. Zuzendari lanak egin zituen Beatrizek. "Ez nekien nora begiratu. Musikari askoren begietan malkoak ikusten nituen. Asko, luzaroan aitarekin lan egindakoak dira. Denak oso hunkituta geunden. Hura ez zen ohiko kontzertua. Aitak batzen gintuen guztiok".

Kontzertu amaieran omenaldi txikia egin zitzaien hiru kontzertuen antolakuntzan ibilitako pertsona guztiei.

Lore sorta bana jaso zuten Arrasate Musikal bandako zuzendari Iker Olazabalek, Goikobalu abesbatzako zuzendari Iñaki Maidaganek, Juanitoren alaba Beatriz Artzamendik eta anaia nagusi David Artzamendik.

> Juanitoren alaba Beatrizek zuzendu zuen zapatu iluntzeko kontzertua
>
> "Zirraragarria izan zen. Musikarien begietan malkoak ikusi nituen"

‘Alma insumisa’ nobela aurkeztuko du Patxi Perez egileak eguaztenean

Arrasateko kultura etxean izango da aurkezpena, eta Bergaran ere egin nahi dute. Intsumisioaren gaineko nobela da

Leire Kortabarria

Alma insumisa (Likiniano elkartea) nobela aurkeztuko du etzi, eguaztena, beronen egileak, Patxi Perez donostiarrak. Arrasaten izango da aurkezpen hori, Monterron kultura etxean, 19:00etan. Gipuzkoan aurkezten dihardu liburua egileak, eta Bergaran ere ekitaldi bat egiteko asmoa du, baina oraindik ez dute zehaztu noiz.

Liburuaren gai nagusiak dira intsumisioa eta desobedientzia zibila. Patxi Perezen bizipenetan oinarritutako liburua da; gainera, bere nobelak gizarte gai askotan sakontzen du eta, zentzu horretan, entsegu antzekoa da. Hala ere, elementu horietan guztietan oinarrituta, fikziozko kontakizun bat egiten du Perezek. Antolatzaileek diote liburu irakurterraza eta entretenigarria dela.

Egileak dio bere helburua dela “autoritate-sistema patriarkalaren aurka egitea” beharrezkoa dela erakustea, eta desobedientzia zibila proposatzen du “denon eskubideak” defenditzeko tresna moduan. Denoi zuzendutako liburua da, baina batez ere gazteei: “Gaur egun ez da guk bizi izan genuen egoera bera –intsumisioa, antimilitarismoa…–, eta garai haien berri jaso dezakete”, diote arduradunek.

DROGAK, BIKOTEA...

Nobelako protagonista da *Koldo* izeneko gazte antimilitarista bat. Bere bizitza kontatzen digu NATOren gaineko erreferendumetik hasi eta Lizarrako Ituna sinatu bitarteko garaian. Intsumisioaz eta desobedientzia zibilaz gain, beste gai batzuk ere agertzen dira: drogak, bikote harremanak, nazioarteko elkartasuna edo emakumeen aurkako biolentzia.

Labur

Aretxabaletako jaietako kartel lehiaketan, 300 euroko saria jokoan

Aretxabaletako Andramari jaiak iragartzeko kartel lehiaketa deitu du Udalak. Parte-hartzea zabalik dago edozeinendako. 50 x 70 cm-ko kartelak behar dituzte, eta derrigorrez ipini beharreko testua hau da: *Andramaixak 2005. Abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a. Aretxabaleta.* 300 euroko saria dago jokoan.

Lanak entregatzeko epea zabalik dago ekainaren 30a arte Aretxabaletako udaletxean edo kultura etxean. Aurkezteko modua da lelodun kartazal batekin, egilearen nortasuna azaldu barik.

Luis Laskurainen erakusketa zabalik dago ekainaren 20ra arte

Ekainaren 20ra arte dago aukera Luis Laskurain margolari bergararraren erakusketa bisitatzeko. Arrasateko Arregi markoztatze dendan ditu esekita 14 lan. Natura hilak dira. Kolore eta espazioaren erabilpen berezia dira bere lanetako ezaugarriak.

Antzuolako KZGuneak bi ikastaro emango ditu eguenean, hilak 2

Antzuolako KZGuneak ekainerako ikastaro egitaraua aurkeztu du. Datorren astean bertan hasiko dira ikastarook, izan ere, eguenean, hilak 2, bi izango dira aukeran: ordenagailuak eta Internet erabiltzen ikasteko oinarrizko ikastaroa (09:00-13:00) eta postal bat bidaltzen ikasteko mintegia (09:00-11:00).

Ekainaren 16an, *Lagun Aro Bizitza Osasuntsua* mintegia izango da, eta 30ean, *KZGuneko Foroak eta FAQ*. Egun bietan emango dute Interneteko oinarrizko ikastaroa ere.

Hitzorduak

‘EZETZ LEPOA JARRI!’ ANTZEZLAN ARRAKASTATSUA, ARETXABALETAN | Ekainaren 4an antzeztuko dute, eta sarrerak salgai daude aste osoan

Elgetako Espaloia antzokian egin zuten *Ezetz lepoa jarri!* komedia eta misterio antzezlanaren nazio estreinaldia. Arrasaten ere antzeztu zuten. Arrakasta polita izan du, bai gurean, baita Euskal Herri osoan ere. Orain, berriro dugu ikusteko aukera, Aretxabaletan oraingoan.

Sarrerak salgai ipini dituzte honako lekuetan: kultura etxea, kirol etxea, eta Artano eta Arlutz tabernak. 10 euro da; egunean bertan erosita, 12. Jose Ramon Soroiz, Kontxu Odriozola eta beste aktore ezagun batzuek egiten dute lan. Hilketa bat da muina, eta publikoak erabakitzen du bukaera.

ZINEMA |

• ***Algo en común* filma emango dute Arrasaten**
Amaia antzokian emango dute film hori gaur, astelehena, 20:30ean. Ikuslearen eguna denez, 3 euro da sarrera.

• ***El fuego de la venganza* filmaren emanaldia Elgetan**
Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloian, 21:30ean.

• **Ez da film emanaldirik izango astelehenean Oñatin**
Gorpuzti jaiak direla eta, film emanaldirik ez da izango gaur, astelehena.

LEHIAKETAK |

• **Eskoriatzako jaietako esaldi lehiaketa eta danborrada**
Eskoriatzarrei zuzendutako lehiaketa da. 13 urtetik gorakoek parte har dezakete, taldeka. Jaiak ondo pasatzera gonbidatzeko, ligatzeko, gazteak eta euskara jaiekin uztartzeko… balio dezakete esaldiek. Udaletxeko eta kultura etxeko eskapeetan ipini dituzten kutxetan utzi behar dira ekainaren 5a baino lehen. Bestetik, danborradako entseguak ekainaren 2an, eguena, hasiko dira, frontoian, 21:30ean. Izena eman daiteke oraindik, kultura etxean.

• **Euskal Herriko II. Grafiti lehiaketa deitu dute**
Topaguneak deitu du lehiaketa hori, 15 urtetik gorako edozeinendako. Zirriborroak bidaltzeko epea zabalik dago. Honako helbidera bidali behar dira: Topagunea; Arlozabal kalea 8 bis -1. C; 48.220 Abadiño (Bizkaia). Bakarka edo, gehienez, hiru laguneko taldetan parte har daiteke. Teknika eta gaia libreak dira; testurik izatekotan, euskaraz izan beharko du. 1.200 euroko lau sari daude jokoan.

• **Lazkao Txiki bertsopaper lehiaketa deitu dute**
Lehiaketa hori deitu du Argi Berri elkarteak, adin guztietako jendearendako, baina baldintzak desberdinak dira gaztetxoen edo gazte eta helduen mailetan. 120, 180 eta 300 eurokoak izango dira kategoria bakoitzeko irabazleendako sariak. Argibideetarako, deitu 649 01 12 62 telefonora (Aitor).

ERAKUSKETAK |

• **Simon Arrieta zeramika taldearen erakusketa**
Simon Arrieta zeramika tailerraren erakusketa dago Bergarako kultura etxean. Ordutegia honakoa da: astegunetan, 18:00-21:00; zapatutan, 12:00-14:00.

• **Abdon Juaristiren antologia bisitatzeko aukera dago**
Ekainaren 12ra bitartean dago zabalik margolari bergararraren lanen erakusketa. Bergarako Aroztegi aretoan dago, Barrenkalean. Ordutegia honakoa da: astegunetan, 18:30-20:30, eta zapatu eta domeketan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

• ***Adur, adur, ez naiz hire beldur* beldurraren aretoa**
Oñatiko kultura etxean dago eta gaur, astelehena, duzue bisitatzeko azken eguna.

IKASTAROAK |

• **Argazki-kamera digitala erabiltzen ikasteko aukera**
Argazki-kamera digitala erabiltzeko ikastaroa antolatu du Eskoriatzako Udalak. Ekainaren 11n, zapatua, egingo dute, 10:00etatik 13:00etara. Izenematea zabalik dago ekainaren 7ra bitartean kultura etxean (943 71 46 88), eta 5 euro da.

DEIAK |

• **V. Juan San Martin ikerketa-beka deitu dute**
Eibarko Udalak egiten du deialdia, zuzenbide eta filosofia arloko euskarazko ikerketak bultzatzeko, eta 9.000 euroko beka da. Argibideak Eibarko Herritarren Zerbitzurako Bulegoan (Untzaga plaza, 1) eskatu behar dira.

MUSIKA |

• **Musika Eskolako ikasturte amaierako kontzertua Oñatin**
Etzi, eguaztena, egingo dute kontzertu hori Santa Ana aretoan, 18:30ean.

Zorion agurrak

ARRASATE
Saioa Ojanguren
Maiatzaren 22an, urtebetetzea. Zorionak! Tela, tela... TXT.

ARRASATE
Aitor Iraeta
Maiatzaren 24an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoen partetik.

ARRASATE
Ubane Madera
Maiatzaren 24an, urtebetzea. Zorionak, *terremoto*! Lankideak.

ARRASATE
Unax Urizar
Maiatzaren 26an 2 urte. Zorionak eta urte askotarako. Etxekoen partetik.

ARRASATE
Iraitz Etxagibel
Ekainaren 3an, urtebete. Zorionak eta muxu bat! Familiakoak.

BERGARA
Antxon Lazpiur
Maiatzaren 23an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

BERGARA
Juan Luis Bilbao
Ekainaren 1ean, urteak. Zorionak eta urte askotarako! Izar eta Maider bilobak.

BERGARA
Ane Larrañaga
Ekainaren 1ean, urtebete. Urte askotarako! Familiakoak.

BERGARA
Irati Lazpiur
Ekainaren 2an, 7 urte. Urte askotarako! Familiakoak.

ARETXABALETA
Alaitz Beltran de H.
Maiatzaren 28an, 6 urte. Zorionak printzesa! Eñaut, Manex, Monika eta senideak.

ARETXABALETA
Mari Carmen Gabilan
Ekainaren 1ean. Zorionak! Okindegiko lagunak.

ELGETA
Gorka Arizmendiarrieta
Maiatzaren 27an, 26 urte. Zorionak! Etxekoak eta lagunak.

ELGETA
Anje Loiti
Maiatzaren 28an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

Jaiotakoak

Idoia Martinez Altube
Bergara • 3,000 Kg.
Maiatzak 21. Gurasoak: Luis Javier eta Edurne (Bergara). Argazkian: Idoia bapo lo.

Lorea Muñoz Rey
Eskoriatza • 3,000 Kg.
Maiatzak 25. Gurasoak: Guillermo (Eskoriatza) eta Celina (Arrasate). Argazkian: Lorea aitarekin.

Gorka Perez Yarza Etxabe
Arrasate • 3,600 Kg.
Maiatzak 26. Gurasoak: Unai (Bilbo) eta Maria (Soraluze). Argazkian: Gorka aitarekin.

Nagore Mateo Setien
Aretxabaleta • 3,140 Kg.
Maiatzak 27. Gurasoak: Ricardo (Aretxabaleta) eta Isabel (Durango). Argazkian: Maria amamarekin.

Ruben de Lucas Ruiz
Bergara • 2,600 Kg.
Maiatzak 28. Gurasoak: Jon (Bergara) eta Ana (Urretxu). Argazkian: Ruben bapo lo.

Haizea Sanchez Llodio
Bergara • 3,125 Kg.
Maiatzak 29. Gurasoak: Carlos (Donostia) eta Amaia (Arrasate). Argazkian: Haizea bapo lo.

Hildakoak

Beñardo Iñarra Orueta
Bergaran, maiatzaren 26an. 88 urte.

Fe Ortiz Galindo
Arrasaten, maiatzaren 26an. 86 urte.

German Bengoa Urrejola
Aretxabaletan, maiatzaren 26an. 83 urte.

Mª Angeles Zabaleta Pierruges
Arrasaten, maiatzaren 26an. 42 urte.

Santiago Mayoral Martin
Aretxabaleta, maiatzaren 27an. 93 urte.

ESKELAK
ASTELEHENEKO GOIENKARIAN

80 euro
943 76 92 71

sms mezuak

- Uban, zorionak! Zela enaiz ba lenau akordau!!!! Urte skotarako!!!! A, ta, akordatzen za bazkari bat daukagula zorretan?
- Maddi eta Alazne, zorionak zuen lankide ohien partez. Ondo ondo pasatu dezazuela zuen lagun eta etxekoekin. A, ta, nahi dozuenean geratuko gara kafetxo bat hartzeko!
- Ubane zorionak, Astelehenako Goienkariko lagunen partez!
- Saioa, ezkonberri! Zorionak eta urte askotarako, spaldiko lankide ohi baten partz!
- Saioa, zorionak Goienako lankide ohien partez!
- Gorka, zorionak, Danbakako zure lagunen partez! Noizko baterojotzaile neskak rock kontzertuetako erregina?
- Zorionak, Gorka! Spaloiko barrakideen partez, je, je!
- Amaitxu da futbola. Domekan zer egingo dogu?

Baita SMS bidez ere!

Bidali mezua:
gnkzorion [laga tartea] [mezua] 7744 zenbakira.

Hurrengo **Asteleheneko Goienkaria**-n irakurri ahal izango du berak zure mezua...

SMSaren kostua 0,90 euro+BEZa

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATEko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).

Bigarren zikloa

- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
- Informatikan Ingeniaritza.
- Industri Ingeniaritza.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza.

GOIERRIko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

JARDUNALDI IREKIAK

ARRASATEko Campusa

943 71 21 92

- 2. zikloa: maiatzak 26, 17:30etan.
- Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OÑATIko Campusa

Lehen zikloa

- Zuzendari Idazkaritza.

Ziklo luzea

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
  - Finantza Zuzendaritza.
  - Merkataritza Zuzendaritza.
  - Erakundeen Kudeaketa.

BIDASOAko Campusa

- Enpresa Zientziatzan Diplomatura.
  - Nazioarteko Merkataritza.
  - Enpresa Logistika eta Garraioa.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZAko Campusa

Lehen zikloa

- Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
- Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
- Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.

Bigarren zikloa

- Psikopedagogian Lizentziatura.
  - Hizkuntzen Psikopedagogia.
  - Esku-hartze Psikopedagogikoa.

Ziklo luzea

- Giza Zientziak Lizentziatura.
  - Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
  - Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

inskripzio epea zabalik

www.mondragon.edu

MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA

Gaur irratian

Arrasate Irratia
FM 107.7

'Igo Autobusera' | 09:00

Ibarreko bertso eskoletakoak koplaka

Arrasateko eta Aretxabaletako bertso eskoletako gaztetxoak Villabonako topaketetan izan dira. Zelan ibili diren kontatu eta koplak abestuko dituzte. 10:40ean izango da hori. Horren aurretik, Maider Morras abokatuak bikoteen eskubide eta betebeharrez hitz egiten jarraituko du.

Oñati Irratia
FM 107.4

'Neguko programazioa' | 12:00

Atzegiren kanpainaren gainean elkarrizketa

Atzegi elkartea kanpaina zabal bat egiten dabil aspaldi honetan. Horren gainean galdetegi sakona egingo diote elkarte horretako ordezkari bati. Solasaldi hori 12:15ean izango da. Horrez gain, albisteak, eguraldia eta beste emango dituzte.

Loiola Irratia
FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Eibarko Udalak ematen dituen laguntzen gainean

Euskadi Irratia
FM 104.4

'Faktoria' | 10:30

Apustuen gaineko legeak izan dituen aldaketak

Radio Euskadi
FM 98.2

'Boulevard' | 09:20

Eneko Landabururi elkarrizketa egingo diote

Gaur telebistan

GOITB

Bergararen eta UDAren arteko derbia
20:30
Bergarak eta UDAk zapatuan jokatu zuten derbia, eta denboraldiko azken norgehiagoka. Laburpena, gaur.

13:45 Emisio hasiera.
13:50 Marrazki bizidunak: *Sherezade*(Egubakoitzean emandakoaren errepikapena).
14:10 Marrazki bizidunak: *Lazkao Txiki.*
14:15 Berriak aurrerapena.
14:30 Ilunpean.
15:00 Eguzki lore.
15:30 Berriak aurrerapena.
15:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. Hainbat musika estilo.
19:30 Emisio hasiera.
19:35 Gaurkoak. Albisteak.
19:45 Klip@.
20:00 Berriak. Deiane Arrietak aurkeztutako albistegia.
20:30 Marrazki bizidunak. *Sherezade* eta *Lazkao Txiki.*
21:00 Baneki. Mikel Aranburuk ibarreko gazteendako egiten duen saioa.
21:30 Harmailatik. Kiroletan asteburuak eman duena Julen Iriondo kazetariaren eskutik.
22:00 Berriak.
22:30 Derbiaren laburpena.
23:00 Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren gaineko saioa.
23:30 Gaurkoak.
23:45 Emisioaren amaiera.

ETB 1

Marrazoak ez du eboluziorik izan, 'Bidaide' -n
10:10
Bidaide-k marrazoen gainean erakutsiko duen dokumentalean, argi ikusten da animalia hori ez dela aldatu.

06:55 Tik Tak circus.
07:25 Betizu. Nick eta Perry, *Hirukiak, Doremiren magia, Montana,* eta *sorgin aspertua.*
09:05 E-Klipse@.
09:40 Elkartasunaren bideak.
10:10 Bidaide.
11:55 Bertatik Bertara.
12:25 Hitzetik Hortzera
13:05 Barne barnetik.
13:30 Betizu.
14:00 Gaur Egun1.
14:35 Postdata.
14:40 Eguraldia.
14:45 Hasiberriak. *Horrelakoa da bizitza.*
15:05 Bidaide.
16:45 Sustraia.
17:15 Gag gag.
17:35 E-Klipse@.
18:00 Iparraldearen orena.
18:05 Betizu.
20:20 Eguraldia.
20:28 Gaur Egun.
20:28 Bertatik Bertara.
21:45 Goenkale.
22:20 Sorginen laratza.
23:55 Eguna iruditan.
00:00 Postdata.
00:05 Sautrela.
00:35 Teknopolis.
01:00 Egi bidean. *Testiguaren tentazioak.*
01:10 Bakarrik edo...
03:10 Bertatik bertara.
03:40 Kilker Dema.
04:10 E-klipse@.

ETB 2

Lehiakide berria 'Operación Pirineos' saioan
21:55
Taldekide berriarekin egingo du aurrera Pirinioetako taldeak. Oraingoan Biescasko alkatearen esanetara.

07:05 Del país de los vascos. *El mundo empieza en Zeanuri.*
07:35 Rutas de solidaridad.
08:00 Embrujada.
09:00 Forum.
09:30 El Punto.
10:05 Matrimonio con hijos.
11:00 Stargate. *La curva del aprendizaje.*
12:00 La cocina de Pedro Subijana.
12:15 Se ha escrito un crimen. *Benedict Arnold tuvo un desliz aquí.*
13:55 Date el bote. Carlos Soberarekin.
14:58 Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.
15:55 Eguraldia. Ana Urrutiarekin.
16:00 Pásalo.
18:25 Siempre cine. Zehaztu bariko filma.
20:20 Esta es mi gente. Klaudio Landarekin.
20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrarekin.
21:50 Eguraldia.
21:55 Operación Pirineos.
23:50 El día en imágenes.
23:55 Documental.
01:00 Zona muerta.
02:40 Esta es mi gente.
03:20 Date el bote.
04:10 Pásalo. Adela Gonzalezen eta Iñaki Lopezen eskutik.

TVE 1

Ezkondu ahal izateko, arazo gehiago
22:00
Urduritasunak daude ezkonduko diren edo ez jakiteko. Bitartean, Fernandok ez daki Anak alde egin duela.

06:00 Canal 24 horas.
07:00 Telediario matinal. Igor Gomezekin eta Susana Rozarekin.
09:00 Los desayunos de TVE. Pepa Buenorekin.
10:00 Saber vivir.
11:05 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du.
14:00 Informativo territorial.
14:30 Corazón de primavera. Txutxumutxuen gaineko saioa Anne Igartibururekin.
15:00 Telediario 1. Ana Blanco eta Maria Escariorekin.
15:55 El tiempo.
16:00 Amor real.
18:15 Obsesión.
19:30 Vamos a cocinar.
20:00 Gente.
21:00 Telediario 2.
21:55 El tiempo.
22:00 Ana y los siete. *La esperada boda II.* Umeek uste dute Anak alde egin duela. Bitartean, Fernando kartzelatik irtengo da, bertako laguna agurtuta.
23:30 59 segundos. Mamen Mendizabalekin.
01:30 Telediario 3.
02:00 Los vigilantes de la playa.
03:30 Canal 24 horas.

La 2

'Los Lunnis', gazteendako saioa
07:30, 17:30
Telebista publikoak gazteei zuzendutako Los Lunnis telesaioa du. Goizean eta arratsaldean dago ikusgai.

07:30 Los Lunnis. *Los minimonstruos, Alf, Aventuras en pañales* eta *Tweenies.*
09:30 Aquí hay trabajo.
10:00 Tv educativa: la aventura del saber.
11:00 La botica de la abuela.
11:15 España.es
13:00 Los Lunnis.
14:15 El enemigo en casa.
15:10 Saber y ganar. Jordi Hurtadorekin.
15:45 Grandes documentales. *El milagro del pantanal: Moradores del bosque.*
16:55 Frontera Límite.
17:30 Los Lunnis.
19:15 Padres en apuros.
19:30 Revista a su salud.
20:00 Informativo territorial.
20:30 Previo fútbol UEFA. Champions.
21:00 Vivir con Mr. Cooper.
21:30 Miradas 2.
21:55 Sorteo de la Bonoloto.
22:00 La2. Noticias.
22:40 El tiempo.
22:45 En portada.
23:30 Estravagario.
00:30 Metropolis.
01:00 Los conciertos de Radio-3.
01:30 A ciencia cierta.

Antena 3

'Los lunes al sol' gaurko eskaintza erakargarria
21:45
Bolada onean dagoen Javier Bardem antzezlearen filma da *El Pelikulón* tartean eskainiko dutena.

06:00 Las noticias de la mañana.
09:00 Ruedo Ibérico.
10:00 En buenas manos.
10:45 Cada día.
14:00 Los Simpson. *Equipo Homer,* eta *Dos malos vecinos.*
15:00 Noticias 1.
15:45 La buena onda de la tarde. Alicia Senovillarekin.
18:00 Números locos.
19:00 El diario de Patricia.
20:15 Pasapalabra. Gonbidatuak: Enrique Miranda, Susana Estrada, Santiago Urrialde eta Eva Gonzalez.
21:00 Noticias 2.
21:45 El peliculón. *Los lunes al sol.* Zuzendaria: Fernando Leon de Aranoa. 2002. Antzezleak: Javier Bardem, Luis Tosar. Espainiako kostaldeko hiri baten, lagun talde bat lan barik dago, lan egiten zuten ontziolan hainbat lanpostu murriztu eta gero. Euren eguneroko joan-etorrien eta lan berria lortzeko esperantzaren gaineko filma da.
00:30 7 dias, 7 noches. Teresa Viejorekin.
02:00 Noticias 3.
02:25 Televenta.
05:00 Saioen errepikapenak.

Tele 5

Preso bat hil da autobusak harrapatuta?
22:00
C.S.I saioan, beso bat azalduko da autobus baten behealdean. Ihes egin gura zuen preso batena?

06:30 Informativos Telecinco matinal.
09:10 La mirada crítica. Vicente Vallesekin.
10:45 El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanak aurkeztuta. *La cocina de Karlos Argiñano* ere emango dute.
14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Carme Chaparrorekin.
15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin.
16:30 La casa de tu vida. Laburpena.
17:00 A tu lado. Emma Garcia eta Felix Alvarezekin.
19:30 Alla tú. Jesus Vazquezekin.
20:30 Informativos Telecinco. Angels Barceló eta Agustin Hernandez.
21:15 Pecado original.
22:00 C.S.I. Las Vegas. *XX.*
23:00 CSI Miami. *Mal momento.*
00:00 Crónicas Marcianas.
02:20 Informativos Telecinco. Alvaro Rivasekin.
02:45 Madrugada de cine. *Venganza apasionada.*
04:30 Infocomer.

Astean GOITBn

Astelehena, 30

'Harmailatik' | 21:30, 23:00

Aizkorriko Maratoia eta derbia, kirol saioan

Preferente mailako azken jardunaldian, Bergarak eta UDAk derbia jokatu dute. Horrekin batera, Aizkorriko maratoiari ere tarte berezia eskainiko diote.

Martitzena, 31

'Iparraldea Oñatin' | 21:00, 22:30

Iparraldea Debagoienetik gertuago egon da

Laixan euskara elkarteak egitarau betea antolatu du Iparraldea Oñatin izenburupean, eta GOITBk jarraipena egin die antolatutako ekitaldiei.

Eguaztena, 1

'Chiloé' | 21:00, 22:30

Malasiako kontuen berri, 'Chiloé' saioan

Maider Egues kazetariaren lantaldeak Txinako uretan dagoen Malasia lurraldea ekarriko du gurera. Hango hondartza ederren, ohituren, hizkuntzen eta bestelakoen berri.

Eguena, 2

'Behazulo' | 21:30, 23:00

Nola antolatzen da Kilometroak jaia?

Kilometroak 05 Leintz bailaran egingo da aurten. Antolatzaileek prestaketa lanak nola doazen azalduko digute, eta arropak saltzen dabiltzan boluntarioekin bidaiatuko dugu.

Egubakoitza, 3

'Eguzkilore' | 11:00, 21:30

Tafallatik Uxuera; hamabi apostoluen bidea

Apirilaren 30eko gauean, erromeria harrigarria Tafallan. 00:00etan, elizatik ateratzen dira hamabi apostoluak Uxuera arteko 20 kilometroak isiltasun osoan egiteko.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen txokoa

ASPEren ESKAINTZA BEREZIA

‘Asteleheneko Goienkaria’-ko irakurleendako

Bete kupoia eta eskaria zeure etxean jasoko duzu, abantailekin:
%30eko beherapena eta oparia pertsonalizatzeko aukera!

PILOTA
- Aspeko pilotari batek sinatua.
- Narruzkoa.

30€* pilota bat

KAMISETA
- Zure izenarekin edo ASPEko pilotari batenarekin.

40 €*

PRAKAK
35 €*

* Produktuen prezioetan deskontua aplikatuta dago.

aspepelota.com

ASPEko pilotariak:
Apeztegia, Arizmendi, Arroyoll, Auxkin, Baleztena, Barriola, Berna, Berraondo, Capellan, Chafee, Del Rey, Elkoro, Etxaniz, Eugi, Eulate, Galarza VI, Galarza V, Gonzalez, Goñi III, Lasa III, Laskurain, Mtnez. de Irujo, Nalda III, Pascual, Titin III, Urberuaga, Xala, Zubieta.

ASPEko produktuak
%30eko deskontuarekin eta pertsonalizatuta
lortu ahal izango dituzu.

ESKAERA-KUPOIA ASPEKO MATERIALA %30EKO DESKONTUAREKIN ETA PERTSONALIZATUTA ESKURATZEKO

Izen-abizenak: . . . . . .
Herria: . . . . . .
Tel.: . . . . . .
Erosketa modua:
☐ **Txartela:** . . . . . .
☐ **K/K:**. . . . . .

• **KAMISETA / Zenbat:** . . . . .
☐ **Urdina** ☐**Gorria**
☐ **M** ☐**L** ☐**XL**
☐ **Pilotariaren izena EDO**
☐ **Norberarena:**
Izena: . . . . . .
(gehienez 10 karaktere maiuskulaz)

• **PRAKAK / Zenbat:** . . . . .
☐ **M** ☐ **L** ☐ **XL**

• **PILOTA / Zenbat:** . . . . .
Zein pilotariaren sinadura:
. . . . . .

Bete kupoi hau eta bidali honako helbira:
ASPE
San Juan kalea 5, 1-eskuina
20600 Eibar

Informazioa: 943 82 04 06

ZOZKETAK

Zozketan parte hartzeko baldintzak:
- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:
Harpidetza kuota, 35 euro
2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, **aste bukaera osoa**

045 zozketa: maiatzaren 30a

ZORIONAK IRABAZLEEI!
Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, zorionak!

Bi sari FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi sari Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi gonbidapen).
- Erreki erretegia (Bergara)
- Aloña Mendi kirol elkartea (Oñati)

MOKOGORRI, 6 urtetik gorakoenendako puzzlea.
- Iñaki Arrieta (Bergara)

ISTILU etxeko mutilendako kamiseta.
- Bigen de Pedro (Bergara)

046 zozketarako sariak

- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTA**n bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).



- Elgetako **ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN**, ekainaren 11n, **TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON** junior ikusteko bi sari (saridun bakoitzarendako bi gonbidapen).
- **MOKOGORRI**, 6 urtetik gorakoendako puzzle bat.

ASTELEHENEKO
Goienkaria

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea z/g • 20500 ARRASATE

Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa
Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: S.S.-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542
HARPIDETZA: 943 79 21 00 • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

ASTELEHENA
2005eko
maiatzaren
30a

Goizean: Lainoa eta eguzkia
Arratsaldean: Lainoa eta eguzkia

Hamarrekoa

JOKIN ETXANIZ | PILOTARIA

"Antzuolako ile apaintzailea lehengusua dut, eta hara joaten naiz ilea moztera"

Oihana Elortza

1. Zorionak! Kirol zuzendariaren meritua ere izango da finalera heltzea, ezta? Neurri batean bai, baina pilotaria bera da benetan finala jokatzea irabazi duena.

2. Zer erakutsi ahal zaio pilotari bati eta zer behar du berezkoa? Jokalariak berezkoa eduki behar du pilotaria izateko. Arlo teknikoak erakutsi ahal zaizkio, adibidez, baina berezkoa edukitzea da dohaina, ez dago dudarik.

3. Zuk nola gogoratzen duzu profesionaletara salto egin zenuen egunа? Oso urduri nengoela dakit. Ez nuen neure burua profesionaletan ikusten. Bergaran egin nuen debuta eta Arrasateko Urra pilotaria zen bikotekidea. 21-22 galdu genuen. Eta osteguna zen, gogoan dut oraindik.

4. Aita pilotaria zelako zara zu ere pilotaria? Agian, bai. Pilota kontuak beti izan ditugu hizpide etxean eta gertutik jarraitu ditut. Futbolean ere ibili nintzen, baina pilota gehiago ezagutzen nuelakoedo, pilota aukeratu nuen.

5. Eibarren dabilen Garitanok, ordea, pilota utzi eta futbola aukeratu zuen. Baita Bakerok ere, adibidez. Garitanok eta biok partidu asko jokatu genituen elkarrekin gaztetan. Askotan pentsatzen dut nik baino aukera hobea egin zuela.

6. Gustatzen zaizu Atano III.a frontoia? Bai, baina pilotariek labain egiten dute. Garbi egoten da, baina beroagatik edo dena delakoagatik, labain egiten dute. Beldur horixe daukat ekainaren 5eko finalerako ere.

7. Antzuolako ile apaindegira joaten ei zara ilea moztera. Mitoa da, orduan, bergararren eta antzuolarren arteko *pikea*? Lehengusua dut Antzuolako ile apaintzailea, eta horregatik joaten naiz hara. Hala ere, ez dut uste inoiz *pikerik* egon denik.

8. Antola dezakezu asteburu bat pilotarik gabe? Bai, baina ez sarritan. Batzuetan jokatzea tokatzen zait niri eta bestetik, gustatzen zait nik prestatzen ditudan pilotarien partiduak ikustea; beraz, konplikatu samarra da, bai.



OIHANA ELORTZA

35 urte ditu Jokin Etxaniz pilotari bergararrak eta bi umeren aita da. Aspe enpresako kirol zuzendaria da, baina oraindik pilotan jokatzen jarraitzen du. Golfean, musean, sukaldean afaria prestatzen eta seme zaharrenarekin pilotan ere egiten du. Ezin organizatu ibiltzen da askotan. Domekan espagetiak edo arroza eta oilaskoa jango omen du, ziur asko, Martinez Irujok.

9. Bromazalea ei zara. Baina, lagun artean bakarrik? Ala lanean ere bai? Ez naiz oso serioa, egia da, baina lana serio egiten dugu, e? Nahiz eta bromarik eta umorerik falta ez den.

10. Ze beste zaletasun dituzu pilotaz gain? Lagun arteko karta partiduak asko gustatzen zaizkit. Eta duela urte eta erdi inguru golfean hasi nintzen. Ahal dudanean Oñatira joaten naiz.

Biharamuna

Eñaut Arriaran

Musikaz blai!

Beti entzun izaten ditugu topikoak herrialdeen ohituren inguruan. Honen adibide da esatea, Oñatin beti jairen bat ospatzen ari direla. Egia esan, hori topikoa baino zertxobait gehiago delako susmoa daukat. Asteburu honetan ere, Gorpuzti jaiak eta Iparraldearekin trukea izan dute. Oñati kolorez eta musikaz bete zuten. Dantzan ere aritu ziren eta arratsalde partean barre algara ederrak bota genituen hango eta hemengo dantzak ikasi eta erakusten ari ziren bitartean.

Arrasate ere musikaz busti da asteburuan. **Juanito Artzamendi**ri omenaldi beroa. Kontzertuak goiz eta arratsalde. Hunkigarria izan zen atzo, San Joan Bataiatzailea parrokian ospatu zen bere omenezko meza nagusia. Ez zen ia inor falta. **David**ek hartu zuen anaiaren postua koroaren zuzendaritzan. Laurogeita hamar urte bete ditu dagoeneko, baina ikaragarria zen ikustea nola mugitzen zuen zuzendariaren makilatxoa. **Kontxi**ere hantxe zegoen, nahiz eta osasun arazotxo batzuek erretiratuta izan duten azkenaldian. Benetan aurpegi ona ikusi nion.

Horrelako omenaldiak ikusten ditudanean, halako bizitza entregatuen ondorio direla konturatzen naiz. Zein poza familia eta lagunentzat. Nik ere ondo harro esan dezaket Juanito ezagutu nuela eta dagoen lekutik bere ingurukoen bihotzetako musika banda berak gidatzen duela. Ezin da beste modu batera izan, hark gidatuko du musika banda.

Bravo Maestro!

www.goiena.net-eko

BLOG KOMERTZIALAK

Zure negozioa Interneten egoteko modu errazena eta merkeena

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak
Posta-e: azabarte@goiena.com
Tel.: 943 76 92 70